

Kristonak taldeak Ahobetehortz diskoa aurkeztu dau

17. orrialdea

Zidarra lortu dau Cintadok Munduko Taekwondo Txapelketan

Txapelketea, Guadalajaran (Mexiko) jokatu zan zemendiaren 13tik 20ra eta 80 kilotik beherako kategorian lortu eban zeberioztarrak munduko bigarren izatea, Park korearraren atzetik. Finalera sailkatu zan egun berean lau burrukaldi irabazi ebazan. **14. orrialdea**



Igorreko Ziklo-krosa eta Txiki Kopa jokatuko dira hileon

15. orrialdea

Abenduaren 3a, euskerea ospatuteko eguna

Bezperan Euskaraldia amaituko da.

Euskaraldia egiten dan urteetan, euskerearen jaiak egun bi hartzean ditu: Euskerearen Eguna, abenduak 3 eta Euskaraldiaren amaiera, bezperan izaten dana. Batean edo bestean edo bietan ekintzak antolatu dira herrietan euskerea euskeraz ospatuteko. Euskerearen aldeko testuen irakurketak, herri argazkiak, kalejirak, jantzak eta indarrak berreskuratzeko mokaduren bat dira ekintza horreetako batzuk. **11. orrialdea**

EUSKARAK

365

EGUN

ISHko kideak Arratian egon ziran



Iñigo Mijangos eta Amaia Iguaran Itsas Salbamentu Humanitarioko kideakaz egon zan BEGITU. Mediterraneoko erreskateak eta Gizartea Eraldatzeko Heziketa Proiektua izan eben berbagai. **8. orrialdea**

ZEANURI

Zulaibar Campusaren inaugurazino ekitaldi ofiziala egin zan 16an

Ikastetxea guztiz erabarrizteko lanak amaituta eta puntako makineriagaz hasi dau ikasturtea Zulaibarrek. Zemendiaren 16an, Campusaren inaugurazino ekitaldia izan zan. Iraganean, oin eta etorkizunean langileak formatako daukan garrantzia azpimarratu eben hizlariek. **5. orrialdea**

IGORRE/LEMOA

Jaurlaritzeak handitu gura dauz Igorre eta Lemoako zabortegiak

Bost zabortegi handitu gura dabez. Euretako bi Arratian dagoz: Igorreko zabortegia eta Lemoako Bistibietakoa. Igorre eta Lemoako planetan ez egoan zabortegiok handitutea eta alkateek informazioa eta azalpenak eskatu dabez Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean. **7. orrialdea**

ARRATIA

Adrian Zelaia: "Eredu neoliberala agortuta dago"

Adrian Zelaia EHUKo irakasleak eta Ekai zentroko presidentek, neoliberalismoa agortuta dagoala baina Mendebaldearen etorkizuna Ukrainako gerrea irabazten dauan blokearen arabera izango dala esan eban *Mundua bidegurutzean* Igorren emondako berbaldian

Berbaldian atzen 50 urteotako errepaso egin eban, oingo momentua azalduteko. Elite korporatiboek daukien poderea bala-ta, Mendebaldeak irabazi ezker, kapitalismo korporatibo baterantza egiteko arrisku handia dagoala esan eban Zelaiak. **9. eta 10. orrialdeak**

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] · 946 317 215 · garena@garena.restaurant
[garena.restaurant](http://www.garena.restaurant)

EKIN
Eraiketak

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

Literatura txokoa

AZKEN ETXEA

Arantxa Urretabizkaia aurton argitaratu dauan eleberria dogu esku artean. Irakurten hasi nintzanean, bertan ustebako giroa, gai eta gogoeta topau neban, hasikerako zalantzak guztiz baztertuta. Izan be, zahartzaroaren gaineko noblea da hau. Idazleak, baina, ez deusku ohiko persona zahar bat erakusten, zahar jentea guztia ez dalako bardina, gazte jentea be ez dan moduan. Zahartzaro betebetea bizi gura dau. Egilearen proposamena utopiaz eta paradisu txikiak berba egitea da. Uste dot liburuaren hasikeran aukeratutako aipuek ondo adierazoten dabela egilearen asmoa.

Azken etxea liburuiko protagonistak Hendaia aldeko etxe bat begiz jo dau eta haregaz tema-

tuko da. Urretabizkaia bizitzaren atzen babeslekuaren bila dabilan adineko andraz jabilku, ezpainak gorritu gura dituana, galeriako besaulkian jarri eta lorategiari begira egon gura dauana. Andreak ez dau bizimodu arrunta euki eta ez dira arruntak izango atzen etxe hori lortzeako egingo dituan ahaleginak.

Liburuiko alkarizketak ahozko berbetan erabilten diran lez ageri dira, marratxo barik, eta hirugarren personan idatzita dagoz. Hainbat personaien ikuspegitik kontauta dago. Idazleak izen bako personaia sare bat aurkezten dau lehen orritik, "zelataria", "kaskagoria" eta "txanoduna". Horrek hoztasun batez aurkezten dauz ekintza, baita personaien soslaia marraztu

be, ezkutatzeko-erakuste olgeta baten. Denporan atzera-aurrerak eginda, nobelak personaien oraina eta iragana jatortzu orriotara: erbestean egindako denporea, iraganeko adiskidetasun hartu-emonak, lan istripuak... Holan, jakin-mina handitu eta eleberri baltzaren atmosfera, zelanbait, irudikatzea lortzean da.

Arantxa Urretabizkaia hamarkadak idazten emon arren, nire ustez, liburu honez argi itxi dau oindino badaukala zer kontau eta, batez be, zelan kontau. Neuk Jakin-minari, behintzat, atzen orrialdeetaraino eutsi deus, eta esan leiteke liburuak zeharo harrapau naua. Beraz, liburuak zuok irakurtea aholkatzen dot.

Ane Miren Rilo



Arantxa Urretabizkaia

Azken etxea

Pamiela, 2022

140 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 28tik abenduaren 4ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 5etik 11ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 12tik 18ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandioa: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorre. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Arratia, Euskadiko zabortegia

Zaldibarko ezbeharra pasau zane-
tik, argi egoan zaborren kudeaketa
plangintzeak aldaketa argiak izango
ebazala. Zoritxarrez, gauzak ez doaz
bide onetik. Izan be, oin arteko ia
neurri danak albo batera itxi dabe
hondakin iturrien kontrola eta mu-
rriktzea; horregaz esan gura deus-
kue sistema produktiboa ezin dala
zalantzan ipini. Halan ba, hautsa
alfonbrapean gordeten segidutako
asmoagaz, alfonbrea bera desa-
gertuten bada, beste alfonbra bat
topetan hastea ei da konponbidea.

Jaurlaritzako aurreikuspenen ara-
bera, hemetik eta 2030era bost
milioi tona hondakin sortuko dira;
batez be, obretakoak. Horrek danak
non gorde? Ba, erdia baino gehiago
Arratian: 2,6 milioi Igorreko zaborte-
gian eta beste 200.000 Bistibietan,
Lemoan. Ba ete dau gurean horren-
tzako danantzako lekunik?

Kontuan hartu beharrekoa da Le-
moa zein Igorreko urigintza planak
udal batzarretan onartu dirala eta, ja-
sota dagoanez, ez dabela aurreikus-
ten zabortegiak handitzeko aukerarik.
Halanda be, ez ei da izango arazorik
ebatzi demokratiko horren gainetik
pasau eta zabortegi inguruko lurra
birkalifiketako. Bestela esanda, laster
eukiko dogu Tapia legeraren eragina
bertatik bertara ezetuteko aukerea.

Hondakin kopuruak igongo dira-
nez, kontrol neurriak be zorrotzuko
dirala dinoskue; ez da barriro emon-
go Zaldibarrekoan moduko gestino
deskontrolaturik. Lehen pasetan zan,
baina hemendik aurrera ez. Arratia-
roi alde horretatik trankil egoteko

esango deuskue.

Baina zabortegiak handitzea ez
da nahikoa izango. Antza, industria
eta ingurumena batera kudeat-
zen dauzan Jaurlaritzeak zaborren
"balorizazioa" indartutako asmoa
be badauka. Balorizazioan kon-
tuagaz, zabor kopuru handiak ku-
deatzeko bide tekniko alternatibo
sofistikaua topau dabe: erretea.

Eta horretarako be badaukagu
nondik ibili Arratian; izan be, Cemen-
tos Lemonak 2021ean (azken datu
ofizialak) 7.500 tona gorpil edo pa-
per industriako 12.000 tona lupetz,
besteak beste, erre ebazan herri
erdian dagoan lantegian. Datuok iku-
sita, argi dago Euskadiko gorpil zaha-
rrak erretoko; parkatu, "balorizetako"
lekua be gurean dogula, eta, asmoak
ikusita, baleiteke beste hondakin
motaren bat erretoko gune nagusi
be bihurtutea lantegi erraustegi hori.
Halanda be, ez gaitezkan horregai-
tik larritu "Aire kalitatea: ona" dala
dinoskue-ta herriko argi kartelek.

Horren guztiorren aurrean, gatx
egiten jaku, talde ekologista lez,
herriarrei behin eta barriro aitautea
zaborra gaika biltzearen garrantzia:
"zeure eteko hondakinak txukun
batu egizuz, baina ez dakigu zeure
etxe ondora zelango hondakinak
etorriko diran" esatea ez da samurra.

Ez dakit zer pentsetan dozun,
baina gure ustez Bizkaia zein EAE
mailako lurralde plangintza ze-
haztean eskualde batzuei rol edo
funtzino jakin bat esleitu deutsee,
eta Arratiarena zein dan argi dago:
Euskadiko zabortegia.

Egoera horren aurrean, zeozer
egin geinke zuzenean kaltetutako
auzotar eta gainontzeko arratia-
rrok? Makatzak taldekook, behin-
tzat, alkarlanerako prest gagoz.

**MAKATZAK, ARRATIAKO TALDE
EKOLOGISTEA**

ERETXIA

Sorioneku-ak gara gu!

Nafarroako Irulegi aztarna-
tegia famatu egin jaku
ikerlariek aurkitu daben
"esku"ko inskripzio edo idaz-
kuna dala-ta. Aurkikuntza garran-
tziatsutat jo behar da hainbat
errazoiengaitik: ondo datauta
dagoan gudu baten ondorio zu-
zena dalako, idazkunaren idazke-
reagaitik, izan daiken oihartzun
edo eraginagaitik...

Edozein aurkikuntza arkeolo-
gikotan datatzea izan ohi da le-
hen zeregina. Idazkun hau K.a.
lehen gizaldikoa dala egiazta-
tzeak euskerearen jatorriagaz
lotura daukan testuen ezagutza
asko aurreratuten dau. Baina
zeresan handiena idazkunaren
idazkerek emon dau. Horree-
tako bat ondokoa da: zelan deitu
idazkunaren idazkereari? Ez ei da
sasoi haretan Iberia penintsulan
bizi ziran zeltiberikoen, ezta ibe-
riarren idazkerea, ezta indoeu-
ropar hizkuntzetakoa be; eta
baskoien lurretan aurkitu danez,
baskoniko edo baskoiera deitu
jako. Honegaz batera esan behar
da, inork ez dauala zalantzatan
ipinten baskoiak "euskaldunak"
ziranik. Orduan, zergaitik ez deitu
euskerea? Ba, gure erdarearen
antxinako berbakereari latina esa-
ten jakon lez, gaurko euskerearen
antxinako formeari ezin ei jako
deitu euskerea, adituen esane-
tan, nahiz kontrako adibideak be
badagozan Europan bertan. Bes-
talde, euskerearen kronologia ze-
haztean nagusiki hiru izendapen
erabilten dira: "euskera zaharra",
XVI. gizaldiko testuak (Lazarraga,
Leizarraga, Etxepare...) izentatze-
ko, "euskera arkaikoa", apur bat
aurreragoko sasoiaroko (V-XVI),
eta hirugarrena "aintzineuskera",
berreraiketaz -hizkuntzarrien as-
makizunez- sortutako euskerea
deitzeako eta K.a. V-I gizaldietan
kokatzen dabena.

Jakinik sasoi bereko dirala as-
matutako aintzineuskerea eta tes-
tu hau, abagune ezin hobea da
asmatutako horrek antzik daukan
aurkitu dan testuko hizkereagaz.



**GOTZON
AURREKOETXEA**

Asmaketa teorikoak balio edo
lagundu behar leuke aurkitutako
idazkuna irakurri eta ulertuten.

Hori euskereari jagokonez, eta
maila teorikoan jarraituz, herri
honen aztarnetan jardun dauan
historiagile eta arkeologo batek
baino gehiagok be egokitu be-
harko dau bere ikuspuntu eta
teoria, aurkikuntzeak daukan
eragina dala-ta: euskaldunek ez
ebela idazten, Euskal Herriaren
beranduko baskonizazioa, eta
abar. Baskoiek ez ebela idazten
esan edo uste izan da, baina
usteak ustel beste behin. Zibiliza-
zino greko-erromatarrek gaintitu
dabazan herri guztiak barbaro eta
ezjakintzat jo izan dira sarriegi, eu-
rei buruz ezer jakin barik. Zenbat
aurrereti daukaguzan! Uste edo
pentsakera horren ostean zera
dago: "ezetuten ez dana ez da
existiduten" pensakera okerra.

Esparru sozialean, aurkikuntza
honek euskerearen prestigioan
euki daiken eragina be handia da.
Nafarroan (batez be) zokoratua,
arbiatua, iraindua izatetik, euren
arbasoen berbakerea dala age-
rian gelditzeak zein eragin izan
daiken hango gizartean ez da
erraza jakitea, baina txikiena iza-
nik be handia izan daike. Eta ez
gabiz berehalako eraginaz berba
egiten, hurrengo belaunaldietan
izan daikenaz baino. Ikaragarriko
euskarria emoten deutso (na-
far) euskaltzaleari, indarbarritu
gingo dau, euskerearen aldeko
burrukan ekiteko. Euskerea Na-
farroako bihotz-bihotzean beste
edozein berbakera baino zaha-
rragoa dala jakiteak ospe handia
emongo deutso eta ospe horrek
bat baino gehiago erakar leike
euskerea ikasteko eta harrota-
suna emongo dakienari berba
egiteko. Zalantza barik, harro
egoteko errazoa badaukagu, ez
hango euskaldunak bakarrik, bai-
ta hemengoak be.

Amaitzeko, ikerketaren ga-
rrentzia azpimarratu behar da
barriro. Eta horretarako badakizu
zer behar dan: ikerketan dirua
inbertitzea, jakinda ikerketeak
gizarte jakitunago eta askeagoa
egiten dauala; hau da, ikerketan
inbertitzea ez dala gataztea.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XIV). Kale berbakunea sustatu guran

AURREKO ZENBAKIKO ARIKETA ERANTZUNAK

Gaur itzelezko eguna egiten (dau) **jona/jok**

Kamara saguak (dabiz) **jabizena/jabizek**

Osabeak oparia emon (deutsu) **dona/doa**

Laster (datoz) **jatozana/jatozak** Gabonak

Laster joango (da) **dona/dok** Mikel Lemoara

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



SARA GUTIERREZ

Orcamariak

Beti izan dot gustukoa itsasoa, olatuen soinua, ur freskoa, harean ibiltea, itsasoan bainatzea... Eta afizino honeek Orcamaris izeneko taldea ezetu eta partaide izateko aukerea emon deusta. Orcamariak urte osoan zehar itsasoan uger egiten daben andra taldea da. 2017an sortu zan taldea, hasieran 14 andra ziran, oin 140 inguru gara.

Taldearen helburua, beste andra batzuen konpainian, itsasoaz gozatzea da.

Adin guztietako orkamariak gagoz, talde anitza da. Bakotxaren erritmoa errespetetan da eta alkarren zaintza praktiketan dogu, hau da, norberaren beharrei begira egon bitartean, beste be begi bat bota behar jakie. Segurtasun handia emoten dau, ur irekietan taldean uger egiteak, batez be neguan edota itsasoa nahasia dagoanean.

Endorfinak askatzeko modurik onenetariko bat ariketa fisikoa egitea dala esaten da, eta

itsasoko ur hotzetan uger egiteak emoten deustun energia izugarria da, arrasti osorako endorfinak jantzan jartzen doguz!

May Serranok sortu eban taldea, eta berak esaten dauan moduan: "Kirolaz gozaten dogu, ez lehiatzeko, baizik eta gure gorputzaz gozatzeko, gure indarragaz konektetako. Batzuetan, olatu handiak datoz, arraunean egin behar dozu, eta pentsetan dozu: "Ez nekian hain indartsua eta hain ausarta nintzanik". Ez dogu uger egiten irabazteko, uger egiten dogulako irabazten dogu!"

Orcamaris taldean, sororidadea praktiketako espazio barri bat topatu dot, modurik onena kostaldean hasi barri dodan etapa honetan integretako eta gozatzeko.

ZERTZEAN



MAITE BERNAOLA

Akorduan II

Akorduan dekot goiz esnatuten zinela goizean.

Akorduan dekot azken urteetan amak edo aitek eroaten eutsuela armozua altxatu orduko ohera.

Akorduan dekot zelatan altxetan zinen ohetik eta suterako bidean katilua eta platera tar-tar-tar-tar... batean ekarten zendula, tar-tar-tar akabu batean, erritmo bizian.

Akorduan dekot egun onak alkarrerri emonagaz batera hauxe esaten neuntsula:
- Amama, baia zer da hori? Goizean goizetik, ze musike dakazu?

Eta berak:

- Zera musikea! Ba, esku honeek parauzine daukie. Zelango parauzine, barriz!

Eta nik:

- Baia, amama! Bakizu zegeitik dan hori? Eskuetan panderoa sarri eta hainbeste ordu erabilteagatik.

Berak:

- Bai, zera! Kia! Izingo da, izin leitike.

* Amama Mauriziani

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ez dakit nire antioju progresibo barrien kontua izango zan, behar bada antioju atzerakoiak erosi nituan nik. Baina "Euskaraz lasai aritzeko gunea" solaz leidu neban momentuan gaurko mezu *friendly* moduko baten aurrean nengoala pentsau neban, komaidios!! Sare sozialetan agertzeko aproposa: "Ke gabeko gunea" edota "Egun on, Itxaso; egun on, Antton". Hobeto fokatu eta begiak "lasai" horretara lerratu jatazan. Hara, behingoagaitik ez ninduen euskeraz egitearren bortxatuko. Dios! Zergaitik pentsauko neban hori? Bueno, aurrerapena bada, baina segitan dot "lasai" hori ondo ulertu barik, ez deustat esangura ondo harrapetan. Lasai ez zaituelako euskeraz egitegaitik joko? Bertan dagozan guztiek lagunduko deustuelako euskeraz egiten? Administrazinoko B1 hizkuntza eskakizuna ez deustulako inork eskatuko? Tira, hala bada, konforme nago. Halanda be, neuk, aukeran honelango mezu inpaktanteagoak gurago dodaz: Kaguen! Euskera badakizu, egizu, kopon!! Ez badakizu, ikasi behingoz, kristo!!

Alvaro Rabelli Yanguas



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa
Bidebarri 1. behea
48140 Igoine-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Itxaropena Zerbaita 100
R.P.S. 31/06

IGORRE/LEMOA

Zabortegiak handituteko proiektua azaltzeko eskatu deusie Jaurlaritzeari Igorre eta Lemoako alkateek

Erredakzioa

Illart Gumuzio Igorreko alkateak eta Saioa Elejabarrieta Lemoakoak, prensaren bidez jakin eben Eusko Jaurlaritzeari baime-na emongo dauala Igorreko eta Lemoako Bistibieta zabortegiak handitzeko. Udalerritako planteamentuetan ez egoan zabortegiak handitutea baina 2021eko abenduaren 9ko Legeagaz, Tapija legea moduan ezetuten danagaz, udalerrien planen gainetik ebatzi ahal dau Jaurlaritzeari. Alkateek, Tapija zuzentzen dauan Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena Sailera eskutitza bialdu dabe informazioa eta azalpenak eskatuten. "Ez dogu euki notifikaziozirik eta bialdu dot eskutitza bat Eusko Jaurlaritzeari esanez, egia bada presan agertzen dana, horren proiektua eskatzen dogula" azaldu deutso BEGITURI Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

"Bagenkian zabortegietako enpresek zabortegiak handituteko asmoa eukiela, baina ez Eusko Jaurlaritzeari hori baimenduko ebani. Gutuna bialdu dogu bilerean eskatuten Jaurlaritzeari Ekonomia ren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena Sailera, ea ze terminotan handituko dan jakiteko. Irekia Jaurlaritzeari webgunean aitatuten da Igorrekoan fibrozementoa, hau da amiantoa sartuko dala. Horrekin zehaztasun guztiak jakin gura doguz, jakiteko Igorren zer dan egin gura dabena" dino Igorreko alkateak.

Zaborrerako leku barik

Zaldibarko zabortegia amildu eta Larrabatzukoa eta Mutiloakoa zarratu ziranetik, 400.000 tona hondakin biltegitratzeko leku barik geratu da EAE. Hori dala-ta, bost zabortegi handitu gura ditu Jaurlaritzeari, eta barriro zabaldu beste batzuk. Handituko diran horreetako hiru, Bizkaian dagoz; bi, Arratian.



ZEANURI

Elikadura jasangarri eta osasungarri tailerra antolatu dabe Zeanurin

Erredakzioa

Abenduaren 1ean izango da tailerra 17:30ean, Kultur Etxean, Bidezko Elikadura eta EHIGE alkar-teen eskutik eta bertan partaideek plater osasungarri bat prestatuko dabe masa ekologikoagaz. Umeentzako elikadura osasungarria landuteko beste tailer bat egongo da eta jolas liberako gunea. Jardunaldia, Zeanuriko jantokiko lantaldeak antolatu dau.

Lantaldeak urte bi daroaz familientzako elikadura eskola bat gartzaten, hiru blokek osotuten dabe-

na. Euretako bat familia eremuko Elikadura Osasungarria eta Jasangarria da eta tailer hau "izan daiteke kakoa, familiak eskola jantokiko aldaketea izan daiteken prozesu luzeago batera hurreratzeko. Baina helburu nagusia, familiei elikadura jasangarri eta osasungarri baten garrantzia" jakinarazotea dala dino lantaldekoek.



IGORRE

Igorrek 2023ko Udal kontuak onartu ditu

Zemendiaren 21ean onartu ziran Igorreko 2023rako aurrekontuak, EH Bilduren aldeko 6 boto eta EAJ-PNVren kontrako 4 botogaz. Guztira, 5.632.296 euro kudeatuko ditu Udalak datorren urtean. Tokiko merkataritza, parte hartze prozesuetatik eratorritako proposamenak eta urigintza lehenesten ditue kontuok.

Erredakzioa

Udal iturrien arabera, aurrekontu proposamena ezegonkortasun testuingurua aintzat hartuta egin dau Udal gobernua eta helburu nagusi bi ditu: zerbitzu publikoen kalitatea bermatzea eta herritarren bizitzak hobetuko dituen proiektu estrategikoak garatzea. "Nazioarteko testuinguru politiko nahasiaren ondorioz, igoera nabarmena egon da gas eta elektrizitate gastuetan, baina ha-ta guzti be, Igorreko Udalak jarritako helburuak beteko ditu".

Gaztegunea eta beste

Gaztegunea da Igorrek martxan daukan proiektuen artean handienetakoa eta oin arteko lanke-teari jarraipena emonez, 2023an, Gaztegunearen lehenengo fasea amaituteko asmoa dauka Udalak. Horretarako, 278.850 euroko diru partidea dago. Eskolako patioan, eskola txiki aurreko jolasgunea be hobetuko da eta albo baten eremu barri bat egingo da. Horretarako, 53.648,91 euro dagoz.

Herriko merkataritza be bultzatu gura dau Udalak eta oin arte

urrietan egiten zan bono denda kanpainari beste kanpaina bat gehituko jako. 40.000 euro dagoz merkataritza bultzatzeko.

Lehenengo aldiz, sortu da partida bat parte hartze prozesuetatik eratorritako proiektu eta obretarako, 40.000 eurokoa, hain zuzen. Herriko kultur eta kirol alkar-teentzako diru partidak igon egin dira: kultur taldeentzako 35.000 euro dagoz eta kirol taldeentzako 83.000 euro.

EAJ-PNVk kontrako botoa

EAJ-PNVk kontrako botoa emon eban. Aurrekontuak onartuteko

bilkuran ezezkorako emon eben errazoiak izan ziran, alde batetik, EH Bilduk, berak ezarritako egutegia ez daualako bete, eta bestetik, jeltzaleentzat ezinbestekoak diran puntu batzuk "ez diralako kontuan hartu aurrekontuak aurrera aterateko prozesuan". Puntu horrekin dira lana, -guztira ordu eta erdi emon dala gaia talde bien artean jorratuten-, gardentasuna, eta partaidetza. "Txistea emoten badau be esan jaku aurrekontuak onartu eta gero egingo dala aurrekontu parte-hartzaileen prozesua" adierazo eben.



IGORRE

EH Bilduk, Ilbanduz indartu: Igorre 2030 prozesua abiatuko dau

Erredakzioa

Ziurbakotasuna nagusi dan gairiotan, EH Bilduk Igorrerako bere herri proiektua berrikusi eta eguneratu gura dau eta horretarako abiatuko dau Ilbanduz indartu: Igorre 2030 prozesua.

Prozesua, alkar-te, eragile eta norbanakoei entzute fase bate-gaz hasiko da. Datozan asteotan alkar-te zein eragileak batzeako asmoa agertu dau Igorreko EH Bilduk, eta hilaren 17an lan-saio bat antolatuko dabe, igorretarrek EH Bilduren Igorre 2030 herri proiektuari ekarpenak egiteko.

Pandemiak, gerrak eta atzen urteotako beste gertakariek, sistema kapitalistearen mugak eta bako-tasanak agirian itxi dabela uste dabe Bildukoek. "Horren ondorioz hainbat persona babes barik dabil

geldituten, bizitza duina izateko aukeratik urruntzen doa gitxikagitxika, eta gizarte kohesinoa arris-kuan dago. Egun egoera honetan egotea ez da kasualitatea, ez da aurreikusi ezin eitekean fenomeno meteorologiko bat, hartutako bide eta ebatzien ondorioa da".

Egoera honen aurrean eta eto-riko diran erronkei aurre egiteko,

bere herri proiektua eguneratu gura dau EH Bilduk. "Aitagarria da udaletik atzen lau legealdietan egin dan lana, eta askotan errepe-tiduten dogun moduan, erakutsi dogu badakigula hanka bat uda-letxean eta bestea herrian izaten. Horregaitik, oingoan be, komuni-dadeagaz batera egin gura dogu lanketa hau, igorretarrek eta Igorrerentzako. Herri proiektuaren helburua da inor baztertu barik igorretarrek babesteko gaituan jantzi barria ilbandutea".



ARANTZAZU/BEDIA

Espazio propioa eta amodioa landuko dira antzezlan eta berbaldi banatan

Erredakzioa

Zemendiaren 25eko egitarauak abenduaren lehenengo egun biak be hartzean ditu. Abenduaren 1ean, 18:00etan, Bediako liburutegian, espazio propioaren beharizana aldarrikatzen dauan familiarentzako antzerkia egongo da eta hurrengo egunean, 19:00etan, Arantzazuko Kultur Gunean Saioa Hernandez

sexologoak, *Amodiorako eta desamodiorako elkarrizketak* izeneko berbaldia egingo dau.

Nire espazioa eman izeneko antzezlanak, umeakanako sexu abusuak prebeniduten lagundu gura dau. Bertan, umeak euren gorputzaren jaube dirala esaten da, eta "ez" esateko eskubidea daukiela ikutu edo laztanik gura ez badabe. Eta helduek errespetau

egin behar dabela ezezko hori azpimarratzen dau antzezlanak.

Saioa Hernandez sexologoak barriz, amodioa eta desamodioa hartuko dau gaitzat bere berbaldian. Ikuspegi feminista batetik, zelan aurre egin amodioari eta desamodioari kontauko dau Hernandezek. Izan be, amodio erromantikoak min handia eta kalte ugari eragin leike andrazkoen bizitzetan.

LEMOA

Urtaile arte deskontu bonuak erabili daitezke



Erredakzioa

Lemoako komertzioen alkarteak Udalaren babesagaz sortutako kanpaina da, eta tokiko merkataritza sustatu eta honek udalerrinari egiten deusnan ekarpena balioan ipintea da helburua. Bonuak salgai dagoz eta 2023ko urtailaren 15era arte erabili daitezke alkarteko 10 komertzioetan.

Komertzio bakoak 15 bonu ditu eta erabiltzaileek 10 euro ordainduta, 15 euro gastau daikiez.

Saioa Elejabarrieta Lemoako alkartearen arabera, herriko merkatariek "ez deuskue bakarrik kalidadea eskaintzen, modu arduratsuan konsumidutako aukerea be eskaintzen deuskue. Eta gure ardura da, Udaletik, ekimen hau bultzatzea".

Tximeleta gozoki denda, Lezat estetika zentroa, Amorrortu taberna jatetxea, Merceria Josier, Laiane ileapaindegia, Kresala taberna eta Argazkilune dira kanpaina honetan parte hartzean daben komertzioak.

ARRATIA

Arratia BHI Institutuan energiaren inguruko egoerea aztertuko dogu

Arratia BHI

Gaur egungo munduan energiak eta honen kostuak gure gizartearen ondoizatean daukan eragina nabarmena da.

Aurtengo ikasturtean Arratia BHI Institutuan ikasleak arazo egoera hau aztertuko dogu. Zentzu horretan, Ekonomia ikasgaiaren eta Agenda 2030 proiektuagaz batera, faktura energetikoa ulertuteko tailerrak egingo doguz ikasleak Goien enpresearen eskutik.

Beste alde batetik, arazo honeri aurre egiteko Europar Batzordea komunitate energetikoen sorrerea bultzatzen dabil. Gai hau lantzeako helburuagaz pasau dan zemendiaren 9an Arratia Institutuan batu ziran Arratiako alkateak, Goien eta institutuko arduradunak.

Herrietako alkateak Illart Gumuzio, Saioa Elejabarrieta eta Josu Gorospe izan ziran. Goienerretik Oier Etxebarria eta Leire Ugarte etorri ziran eta institututik ekonomiako irakaslea Maikel Gomez, A2030eko arduraduna Alex Madariaga eta zuzendaritzako Erruki Etxebarria izan ziran.

Helburua alkarlanean energiaren konsumo arduratsua egiteko informazioa partekatzea eta

hausnarketa egitea izan zan, eta bide batez, energia komunitadeak sustatzera animetea.

Komunitade honek energia sektoreagaz zirikusia daukan jardura baten lankidetzan jarduteko asmoagaz, onura sozioekonomiko eta ingurumenekoak emetoko entidadeak dira.

Zein abantaila ditu? Autokonsumo partekatua tokiko baliabideen ustiaketa egiten da, persona zaurgarrien defentsa eta klima aldaketek sortutako kalteak txikitzea lortuten da.

Energia oinarritzko ondasuna dalako, ahaldundu gaitzean eta klima aldaketaren aurrean erantzun komunitarioak antolatu daiguzan.



IGORRE

Azoka solidarioa antolatu dau hilaren 16rako Elkartasun Begiradak taldeak Igorren

Erredakzioa

Merkadua abenduaren 16an izango da, arrastiz, Agirre Lehendakaria kaleko autobus gela-kuaren atzeko arkupeetan. Bertan salgai ipiniko diran produktuak, aurretik batutakoak izango dira, zemendiaren 17an eta abenduaren 1ean. Jasotako dirua, Aspanovasentzat izango da. Zehatz, ospitaleraturako adinbakoan zaintzaileentzako bazkarietarako eta afarietarako txartelen proiekturako. Helburua da elikadura osasungarria jatera ani-

metea, ahalik eta baldintza fisiko onenetan egon daitezke euren seme-alabei lagunduteko" dinoo Elkartasun Begiradak taldekoek.

metea, ahalik eta baldintza fisiko onenetan egon daitezke euren seme-alabei lagunduteko" dinoo Elkartasun Begiradak taldekoek.



BEDIA

Aitor Sorriketa: "Herri txiki baterako egingarria da Bediako III. Berdintasun Plana"

Erredakzioa

Zemendiaren 16an, martian osoko bilkuran onartutako Bediako III. Berdintasun Plana aurkeztu eban jente-aurrean Aitor Sorriketa Bediako alkateak, eta Garazi Callek, plana egin dauan Murgibe enpresakoak, planaren nondik norakoak azaldu ebazan. Planaren indarraldia 2022tik 2025era da eta 4 ardatz, 9 programa, 12 helburu eta 35 ekintza jasoten ditu.

Planaren ardatzak, Emakundek berdintasun planetarako eskatzen dituanak dira: gobernu ona, andren ahaldundutzea, gizarte antolakuntzearen eraldaketea eta indarkeriarik bako bizimoduak, hain zuzen be. Ardatz bakoetako ekintzak zehazteko herriko egoerearen diagnostikoa egin dau Murgibek. Horretarako, galdetegiak zabaldu ebazan herri-tarren artean eta 106 pertsonak, 73 andrazkoak eta 33 gizonetako erantzun eban. Bederatzi sakoneko elkarrizketa be egin ziran eta talde dinamiketan 10 pertsonak hartu eban parte: 5 andra eta 5 gizon, udal langile eta politikarien artean.

Hortik jasotako informazioan

eta proposamenetan oinarritu dira planak jasoten dituan ekintzak. Gobernu onaren ardatzean, plana ezetuten emotea, kale izenak berrikustea eta enplegu publikoan berdintasun klausulak berraztertzea dagoz, berbarako. Andren ahaldundutzeari jagokonean, autodefensa feminista eta kirola egiteko lekuak egokitzea dagoz beste proposamen batzuen artean. Gizarte antolakuntzearen eraldaketarako, besteak beste, irakasle eta gurasoentzako tailerrak eta formazioa eta gizonak inpliketea proponiduten da eta Bediatik indarkeria matxistea ezabatzeko gaztetxoak behar egin eta auzuneetako argite-ria hobetuko da, berbarako.



IGORRE

Kiroldegia barriztuteko proiektua amaitzen dabil Igorreko Udala

Zehaztasun txikiren bat baino ez dala falta dino Illart Gumuzio Igorreko alkateak eta proiektua azalduteko bilera erabiltzaileak egin ostean, abenduko udalbatzarrean onartu eta handik gitxira lanak egitea espero dau.

Erredakzioa

Lanok ez dira martian erre zana konponduteko bakarrik izango, instalazioak hobetuteko be izango dira.

Kiroldegia erre zanean, Igorreko Udalak dirulaguntzea eskatu eutsan Bizkaiko Foru Aldundiari, usetekabeei bideratutako kapituluan. Dirulaguntza hori 202.212,82 eurokoa da. Aseguru etxe eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz diruaren kudeaketea egin ostean, "dirua badaukagu eta proiektu behin betikoa eukiteko detaileren bat baino ez da falta. Hile amaieran, proiektua azalduteko erabiltzaileak bilera egin dogu eta ea abenduko osoko bilkuran onartuten dogun proiektua eta hortik aurrera egin". Lanok, erabiltzaileei ahalik eta gitxien kaltetuz egingo dira. "Erre zanetik, erre zan eremua eta gainontzekoa bananduta dagoz. Hor asmoa da banaketa hori aprobetxau, lanok ahalik era-

gin gitxien euki dagien. Obrak, sartu eta ezkerreko aldean izango dira, eta gaur be zarratuta daukagu alde hori" dino alkateak.

Konpondu eta hobetu

Igorreko kiroldegiko sauna martian erre zan, eta kalte handiak eragin ebazan instalazioetan, ez bakarrik saunan bertan, baita beste instalazino batzuetan be, aldagelatan, esate baterako. Seguratsuna bermatu ahala, gunee batzuk zabalduen joan ziran eta ondoren, Udal gobernu kiroldegiko barrukaldea berreregiteko proiektuan hasi zan lanean. Datozan hilabeteetan erreforma bat egingo da instalazinoak hobetuteko.

Kiroldegiaren barrukaldea barriztatuteko proiektua egiteko herritarren hainbat eskari kontuan hartu dirala dino Udaletik. Holan, dutxarako kabina indibidualak ipini gura ditue edota ugerlekurako sarrerea hobetu.



ZEANURI

Zulaibar Campusa inaugurau dabe

Ikastetxea guztiz erabarrizteko lanak amaituta eta puntako makineriakaz horniduta hasi dau ikasturtea Zulaibarrek. Zemendiaren 16an, Zulaibar Campusaren inaugurazino ekitaldia izan zan.

Erredakzioa

Bertan, Xabier Aldama Zulaibarko presidentea, Eider Ajuriagerra Zeanuriko alkatea, Joseba Segura Elizbarrutiko Gotzaina eta Unai Rementeria BFAko Ahaldu Nagusia egon ziran, besteak beste. Bizkaia Irratiko Jabi Onaindiak egin ebazan aurkezle lanak.

Ekitaldia, aurrekuagaz hasi zan, Dimegaz taldeko partaide batek egin eban aureskua jantza bertikal moduan. Jantza tradizionala modu barriztuteko baten; izan be, "barriztutea hasi da eta ez dauka atzera bueltarik" Onaindiaren esanetan.

Xabier Aldamak, barriztutea beharrezkoa dala lanpostuetara egokitzeko esan eban; "Zulaibarraren enpresakaz oso konprometiduta gagoz", eta kalidatezko heziketa eta enpleguaren arteko loturearen garrantzia azpimarratu eban. Horregaitik, "talentu eta enpresen zerbitzura dagoan abangoardiako ekipametuaren alde" egin dabela esan eban.

1955eko zemendiaren 11n, sortu zala gaur egun Zulaibar dana azaldu eban Eider Ajuriagerra Zeanuriko alkateak "gaur egunera arte idearik be ez daukat zenbat mila ikasle pasauko ziran handik". Urte horreetan guztietan Zulaibarrek Zeanurirentzat zer izan dan eta zer dan azaldu eban alkateak. Ildo beretik, Joseba Segura gotzainak, giza balioak daukazan hezikuntzea defendidu eban.

Ondoren Ahaldu Nagusiak hartu eban berbea eta Arratian industriak daukan garrantzia ekarri eban gogora. Arratiak, Bizkaia baino industri lan-tasa eta barriztutea tasa handiagoa daukala

jakinarazo eban. Horregaitik, Arratiako industria lehiakorra eta kalidatezko lana eskaintzen dauan industria izaten segidu dagian, BFAk egin dauan inbersioa, "ezinbestekoa" joten eba Diputazinoak esan eban Rementeriak. Ostean, Gontzal Mendibilek, bere atzen laneko lau kantu jo ebazan eta kopauagaz amaitu zan inaugurazino ekitaldia.

Diru publikoa

Zulaibarko erabarrizte lanak egiteko, 5,5 miloi behar izan dira eta euretako 4,3 milioi euro ipini ditu BFAk. Zulaibar Lanbide Ikastegia, EBI Elizbarrutiko Ikastetxeak, Errota Fundazino eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko alkarlan publiko-pribaduagaz egin dira ikastetxearen barriztute lanak.



Inaugurazino ekitaldiko irudi bi.

DIMA

Diman indarkeria matxista kasuen aurrean erantzun instituzionala emoteko protokoloa onartu dabe

Erredakzioa

Zemendiaren 23ko Osoko Bilkuran onartu zan aho batez Diman indarkeria matxistearen aurrean erantzun instituzionala emoteko protokoloa. Protokoloak erantzun

publikoa emoteko prozedurak finkatzen ditu eta bere helburuak, biktimei arretea eskaintzea eta emotea, Udalak indarkeria matxista eta haren eragileak gaitzestea eta herritarrek konzientizatzea dira.

Eraso matxista baten barri eukitean, biktimeari arretea emotek daukala lehentasuna jasoten dau protokoloak. Erantzuna, bizkorra eta koherentea izan behar dala, arazoan inplikaturako erakunde guztiak koordinatua, eta era-

ginkorra. Horregaitik, garrantzitsua da Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eta Bardiatsun Zerbitzuagaz hartu-emon estua izatea. Erasoren informazino kontrastua eta konfidentziala izan behar da eta erantzuna sendoa eta errespetuzkoa. Inpunidadea geldituteko berbiktimazino saihestu behar da eta prebenzino lana handitu.

Aktibazino

Protokoloa ez da bakarrik akti-

bauko eraso matxista Diman gertatzen bada, Dimatik kanpo gertatu baina erasotzailea edo biktimea Dimakoa bada be aktibauko da. Baita andra bat edo bere seme-alabak hiltzen baditue Euskal Herrian be.

Aktibazino kasu baktxaren ostean, behin erantzunak emonda, protokoloaren atal guztiak aztertu eta balorauko dira, zein hutsune egon diran identifiketako eta emon ahal diran hurrengo kasuetan kontuan hartzeako.

AITA MARI. IÑIGO MIJANGOS ETA AMAIA IGUARAN

"Erreskateek sortzean dabe interes handiena, baina garrantzitsuena personak eta euren eskubideak dira"

Itsas Salbamentu Humanitarioko kideak, Arratian egon ziran zemendiaren 7tik 13ra, alkartea eta euren proiektuak ezetuten emoten. Horretarako, erakusketa bi, berbaldiak, dokumental baten proiektzioa eta jaia antolatu eben Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Basoagaz batera.



eta interes handiagoa sortzean dauana, Gizarte Eraldaketarako Heziketa Proiektua da. Eta proiektu horretan sartzean dira Arratian egiten gabizan jarduerak.

Zergaitik Arratian?

Amaia Iguaran (I): Basoakoa proiektu solidarioa da, eta aspalditik ezetuten dogu alkar. Ni, esaterako, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Mobimentu Feministatik nator eta, beraz, lotura bat daukagu Basoagaz. Arratia eskualde solidarioa da eta gizarte mobimentuko erakunde asko dago bertan. Eta pentsau genduan lan egin behar genduala Arratiako alkarteakaz eta hezkuntza komunitadeagaz jentearengana ailegetako, hori da-ta egin gura doguna.

Jentearen atxekimentua lortzeaz gainera, finantziarioa be inportantea izango da.

I: Bai, finantziarioa beti da oso garrantzitsua. Aita Mari proiektuak diru asko behar dau, baina hiru proiektuek behar dabe finantziarioa. Eta ez da garrantzi gitxiagokoa Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Proiektua, finantziario aldetik bolumen txikiagoa euki arren; izan be, ez dogu ezer egiten Mediterraneoeko erdikaldeko jenteari lagunduten, atzean ez badago persona horreen errealdadeagaz sentibera dan gizarterik. **Horretarako dagoz erakusketak, berbaldiak, eta beste jarduerak. Zer erakutsi edo transmitidu gura dozue horreen bitartez?**

I: Erakusketa bi daukaguz. Bata

ibiltaria da eta institutu, kultur etxe eta abarretara eroaten dogu. Erreskateetako eta Chios irlako kanpamentuetako argazkiak dira, azalpen testuakaz. Apur bat azalduten dogu zer dan migrazioa, zeintzuk diran migratzaileen eskubideak, dagozan itsasoko bideak eta Mediterraneoeko testuingurua. Baita zer dan Aita Mari eta zer SMH. Beste erakusketan, Libiako egoera, Greziakoa, migratzaile eta errefujiaduen eskubideak, lege aldetik migratzaile eta errefujiaduaren arteko desbardinatasuna, eta abar azaltzen da.

Jentearengana ailegau, enpatia sortu eta batzuetan, ikuspegia aldatu gura dogu. Gu be beste herrialde batzuetan errefujiadu izan ginan inoz eta gura dogu jenteak normal ikustea herrialde batetik bestera iges egitea bizitza hobe baten bila, errazioa edozein izanda be. Errazioak asko izan daitezke: ekonomikoa, gerra edo gatazka armaua, sexu orientazioagaitiko jazarpena...

M: Berbaldietan, erreskatea zer dan azalduten dogu, gero jenteak galderak egiteko. Aita Mari biztuten dau interesik handiena jentearengan, baina, garrantzitsuena personak eta euren eskubideak dira. Gaur egun Italian ikusten gabiz lehorretzeko eskubideak ukatzen jakiela.

Nazioarteko itsas legeria oso argia da horretan: ez dago zalantzarik, ez dago ñabardurarik. Eta erreskate operazioa ez da amaitzen personak portu seguru ba-

ten lehorreratu arte. Portu seguru batek ez dau esan gura bakarrik denporaletik babestua, esan gura dau han persona horreen bizitzak ez dagozala arriskuan. Izan be, ez da portua, puntu edo leku seguru baina.

Zuk dokumentala 2017an egin zan baina ez dau gaurkotatun galdu. Hor gizartearen eta hainbat gizarte erakunderen erantzunak jasoten dira: Ongi Etorri Errefuxiatuak, CEAR eta Zaporeak-enak, hain zuzen be. Adibide batzuk dira, baina hemen, Arratian be, gizarte mobilizazio adibide argiak dagoz. Gizarte eragileok ahotsa daukagu eta gauzak egin daitezke erakunde erantzun faltearen aurrean gure desadostasuna azalduz.

Arratiakoa bira baten barruan dago?

I: Bira bat baino gehiago, Gizarte Eraldaketarako Heziketa Proiektuaren barruan dago. Araban, Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan eta Valentzian egoten gara. Valentzian Hezkuntzagaz hitzarmen bat daukagu. Oin, Araban, Aiara haranean eta Gasteizen, eta Bizkaian, eskualde guztietan egon gura dogu: Enkarteriko haranetan, Uribe Kostan, Bilbon... Gizarte erakutsi gura deusagu zer dabilen gertatzen. Eta hemen, nazioarteko kooperazioaren aldagaia be sartu gura dogu, ze Aita Mari erreskate eta Chiosen SMH artatzen dituan personak, Euskal Kooperazio Agentziak, kooperazio programak dituan herrialdeetatik datoz.

Erredakzioa

BEGITU, Iñigo Mijangos Itsas Salbamentu Humanitarioko (SMH) presidenteara eta Amaia Iguaran, eragin politiko, genero, giza eskubide eta Gizartearen Eraldaketarako Heziketa proiektuko ardurunagaz egon da.

Aita Mari itsasontziagaz Mediterraneoan egindako erreskateak dira SMHren arpegi ezagunena. Baina zer da SMH eta zer Aita Mari?

Iñigo Mijangos (M): SMH alkarte bat da, Gobernu Kanpoko Erakunde bat. 2015ean sortu zan eta talde nahiko heterogeneoa

gara. Hasikera baten, batez be erkidegoan salbamentuan jarduten genduan sorosle eta boluntarioak ginan. Gero larrialdietako jentea hurreratu zan: suhiltzaileak eta abar. Apurka-apurka alkartea hazi egin da, eta gizarte oinarri askoz be heterogeneoagoa dauka, alkartea diruz lagunduten dabenek osotuta. Aita Mari proiektua SMHn daukaguzan proiektuetako bat da. Horrezaz gainera, Greziako Chios irlakoa daukagu. Gaur egun laguntza medikoa emoten dogu Chios irlako erregistroan. Urte honeetan irlan ibili diran 80.000 lagun inguru artatuko genduzala kalkuletan dogu. Eta beste proiektua, urte bi daroazana eta gero

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

ADRIAN ZELAI

"Neoliberalismoa agortuta, kapitalismo korporatibo batera pasetako arriskua dago"

Igorren emondako *Mundua bidegurutzean* berbaldian, atzen 50 urteetako historia geopolitiko eta ekonomiko azaldu eban Adrian Zelaia EHUko Ekonomia Aplikatuko irakasleak, oingo momentua intepretetako klabeak emonaz.



da, Errusia, Txina, India, Brasil eta Hegoafrika lango herrialdeak.

Korporazioak Mendebaldean

Aspaldi honetan, Mendebaldean, estatuak korporazio handien menpean dagozala azaldu eban irakasleak, eta elite korporatiboek ebazten dabela politika. Elite korporatiboak persona, familia edo inbersino taldeakaz dagoz osotuta, eta euren daukie hedabide eta gobernuen kontrola. Hori dala-ta, atzen urteotan, Mendebaldean zabaldu diran ideologiak, elite korporatiboek zabaldukoak dirala dino Zelaiak.

Baina atzen hamarkadetan, elite korporatiboek euren poderea mehatxatuta sentidu dabela be esan eban. Alde batetik, euren menpe ez dagozan Errusia eta Txinaren pisua munduan gorantz doa. Zer egin, AEBk munduko herrialderik poderetsuena izaten jarraitu dagian? Zer egin leikie mundua, oingo moduan jarraituteko eta korporazioen poderea mantenduteko?

Ekonomiaren aldetik beste mehatxu bat sentidu dabela elite korporatiboek esan eban Zelaiak berbaldian; izan be, euren bulzatutako eredu ekonomiko neoliberal agortuta dago. Hirugarren mehatxua Internetetik etorri zan, Internetek zirikitua zabaldu eutsalako korporazioek eukien kontrol ideologikoari.

Hiru mehatxu horreen aurrean, elite korporatiboek hainbat estrategia ipini ebezala martxan azaldu eban. Errusia eta Txinaren mehatxuen aurrean, mundu musulmana desengorkotzeari ekin eutsien Mendebaldeko herrialdeek,

AEB buru zala. Helburua Errusia eta Txina desestabilizetea zan, herrialde horreek hainbat herrialde musulmanegaz egiten dabelako muga. Afganistan, Irak, Libia eta Siriari erasoak dira horren adibide. Baina, 2015ean, Errusiak Sirian esku hartu eta prozesua eten ebala esan eban hizlariak.

Podere ekonomikoari eusteko, elite korporatiboek estrategia batzuk hartu ebezan eredu neoliberal agortuta egoala ikustean, eta Mendebalde osoan, soldata eta gastu publikoa murrizteari ekin eutsien, beste neurri batzuen artean. Murrizketek gainera, hedapen ekonomiko be erabili eben estrategia moduan; hau da, banku zentralak diru gehiago emon eta zorra biztu eben. Baina zorrak desoreka handiagoa ekarri eban eta arazoak sakondu ebazan.

Interneteko mehatxuari aurre egiteko, korporazioek sare sozialak sortu ebezala azaldu eban. Sareok, neurri handi baten, bate-ratze ideologikoa lortu dabe.

Mendebalde gero eta zorpetuago

Zelaiaren arabera, Mendebaldeko eredu ekonomiko ez da oso arrakastatsua izan, produktibidadeak behera egin dau. Hazkundetik handiena, %3,6, 1950 eta 1980 urteen artean izan zan, baina salbuespena izan zan, eta oin, hazkunde Ora (2010etik 2018ra, %0,8) hurreratzen dagoala esan eban Ekai ikerketa zentroko presidentek.

Ha-ta guzti be, neoliberalismoaren porrota zenbakietan baino gehiago, baliabideetan ikusten dala dino Zelaiak. Eta horreen, artean, zorra dago.

Erredakzioa

Zelaiaren arabera, urte luzeetan AEBk nagusitasun ekonomiko eta militarra euki ondoren, eta mundu multipolarrerantza ginoiazala uste genduan, mundua zati bitan dagoala bananduta ikusi

dogu eta Ukrainako gerreak agirian itxi dau herrialde baktza zein aldetan dagoan. Bloke baten, Mendebalde dago; hau da, Europa, AEB eta euren aliaduak; Japonia eta Australia, tartean. Eta bestean, BRIC dalakoa eta sustertzen dabiz herrialdeak; hau

Aspaldi honetan,
Mendebaldean,
estatuak korporazio
handien menpean
dagozala azaldu eban
irakasleak, eta elite
korporatiboek ebazten
dabela politika

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiraletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

belagorri
mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziana
Zamako, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
-Beltza dago jantziz
-Salmentan zein ditairuan
Lurrik (makitako, landak, basoak...)
Etebizitza (pisuak, baserriak, etxeak...)
Garaioak
Lortu komertzialak
Publizitateak
-Balonazinoak
-Bela dago proiektu
-Irakin berriak erakitzeko
-Enelomak
-AKTibitate-proiektuak
-Ibane diseinua
-CEE eta ITE-ak
-Hirigintza aholkularitza
-Negozioak irekitzeko
-kudeaketa
arratia
INMOBILIARIA
Lanaburu, Agirre 23, 48140 - Igorre
Nahiz 94 631 81 89 - 455 96 25 51
24/7 911 11 00 00 - 911 11 00 00
arratia@arratia.com

Kili-Kili
Amo eta Pisuak
Lehendakof Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

ASESORIA GORBEIALDE
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tlnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

begitu
eus

Neurriak hartu diran arren, hazkundeak makala izan da Mendebaldean. Gain-zorpetzea, andren gain-esplotazioa eta hondoratze demografikoa dira eredu ekonomiko neoliberalak eragindako kalte batzuk, eta 2020ean, multinazionalen euren, onartu eban eredu agortuta dagoala. Hori dala-ta, *The Big Reset*, Berrabiatze Handia, proponiduten dabe elite korporatiboek.

Indar ekonomikoa eta indar politikoa ekialderantz

Mendebaldeko eredu agortu bitartean ekonomiak ekialderantz egin dau; ez Txina bakarrik, Asia orokorrean, berbiztu egin da. COVID-19aren aurretik, munduko produkzioaren %70 Asiakoan ziran eta herrialdeok hazten jarraituten dabe.

Geopolitikearen atzean indar militarra egon arren, ekonomia eta geopolitikea oso lotuta dagoz, eta Asia pisua hartzean doa mundu globalean. Oingo momentuan, oindino AEB da buru gaitasun globalean, baina Txina gero eta hurrago dago gaitasun globalaren lidertzatik. Oin arte, Errusia eta Txina euren lurraldeen kontrola eukiten konzentrau dira, eta AEB munduaren kontrola izaten, baina horretarako base militar asko behar dira eta horreek mantendutea garestia da. Hori dala-ta, irakaslearen arabera, indar militarri jagokonean, Errusiak hartu deutso aurea AEBri, abantaila teknologikoak, Txinagaz daukan aliantzeagaitik eta espazioan be nagusi dalako eta gaitasun ezezagun batzuk be badiualako Putinen Errusiak.

Txinak be hainbat aldaketa ekarri ditu geopolitikara atzen urteotan. Xi Jinping, 2012an podera heldu zanean, ustelkeria eta

korporazino handien kontrako politikak abiatu ebazan. AEBko atzen presidente biek, Trumpek eta Bidenek, zigorrak eta gerra komertziala ezarri deutesiez Txinari, eremu hori arriskuan ipiniz.

Bloke bi

Txinak eta Errusiak euren indarrak lotu dabez: Txinaren indar ekonomikoa eta Errusiaren indar politikoa eta militarra, hain zuzen be. Eta beste herrialde batzuk, gorantzako ekonomiadunak, adiskide ditue: India, Brasil eta Hegoafrika, esaterako. Herrialde horreek, sano desbardinak izan arren, baditue ezaugarri batzuk komunean. Esate baterako, Mendebaldean gobernuak korporazinoen menpe badagoz, herrialde honeetan, gobernuak korporazinoen gaintetik dagoz. Gainera, oreka bat dago enpresa publiko eta pribaduen artean, Mendebaldean barriz, aspaldi galdu zan oreka hori pribaduaren mesedetan; esate baterako, munduko banku handienak publikoak dira, eta Txinan dagoz.

2022an, mundua zati bitan bananduta dagoala ikusi dogu. Alde batetik, NATO dago eta bestetik Shanghaiko Kooperazino Erakundeko herrialdeak eta BRICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) susperraldian dagozan herrialdeak. Atzen talde honetan sartzeako bidean dagoz Iran, Argelia, Saudi Arabia, Argentina, Mexiko, Hego Korea...

Etorkizunean, zer?

Zelaiak azaldutakoaren arabera, Mendebaldean, korporazinoek ekonomian Berrabiatze Handia (*The Big Reset*) deitu dabena ipini gura izan dabe martxan, neoliberalismoaren lekukoa euren kontrolpeko beste kapita-

lismo bateri pasetako. "Interesgarria da zelan lotzean dan hori COVIDagaz. Faktore bi dagoz. Alde batetik, hondamendi baten aurrean errazago onartzen dira beste modu baten onartuko ez litzatekezan neurriak" eta bestetik be errazten dau "suntsipen sortzailea; hau da, hain onak ez diran enpresak desargertu arazotea". Transizinoarako beharrezkoak ziran faktore bi horreek eta ezin aproposagoa izan da COVID-19a.

Ekonomia barrirako zorra arazo bat da. Ze Mendebaldean zorra produkzioaren %350 da. Zorrari aurre egiteko, inflazioa erabilten dala erremintatzen dino Zelaiak. Baina Mendebaldeko herrialdeek hain zor handia daukie, interes tasak gitxi igonda be, zorrak tamainu handia hartzean dauala eta enpresa batzuek ezin deusiela aurre egin. Horrek hainbat enpresa zarratutea ekarri dau eta Mendebaldeko industria gainbehera doa. Eragina baina, ez da ekonomian bakarrik geratu. Gizartearen erreakzioaren bildurrez, neurriak hartu dira (polizia, armadak, lege barriak...), gero eta zensura handiago dago eta atzenengo 3 urteotan, personen askatasun zibilaren kontrako neurri latzak hartu izan dira. Askatasun zibilaren galera hau areagotu egingo da Zelaiaren ustez, elite korporatiboek kontrola areagotu dagien.

Mundua aldatu dabene beste gauza asko be gertatu dira 2022an, gerra monetarioa eta Ukrainako gerrea tartean. "Ukrainako gerreagaz dana aldatu da eta Berrabiatze Handia kajoian sartu da" esan eban hizlariak.

Ukrainako gerrea

Ukrainako gerrea dala-ta, klase politikoa hartutako neurriek kal-



te gitxi egiten deusiela Errusiari, kalte handia Europari eta irabaziak AEBrentzat dirala esan eban Zelaiak.

Europaren etorkizuna, gatazka nok irabazten dauanaren arabera izango da. Edozelan be, ez dirudi Europak etorkizun samurrik izango dauanik, jentek ez baditu gauzak aldatzen. Mendebaldeak irabazi ezker, Zelaiaren arabera, hasikeran neoliberalismoak segiduko dau apur baten, eta gero, Berrabiatze Handiaren bitartez, kapitalismo korporatibo batera pasauko litzateke. Suspertzen doazen herriek irabaziko balebe barriz, euren eredu nagusituko litzateke; hau da, gobernuak korporazinoek baino podere handiagoa eukiko leukie.

Ukrainako gerrea dala-ta, klase politikoa hartutako neurriek kalte gitxi egiten deusiela Errusiari, kalte handia Europari eta irabaziak AEBrentzat dirala dino Zelaiak



Abenduak 3, zapatua

17:30ean ludotekan ipuin

kontaketea umeentzat

Saroa Bikandiren Azalerako ipuinak

20:30ean udaletxeko arkupetan

Dj Elepunto

**AREATZAN BE EUSKERAZ
BIZI GURA DOGU!**



EUSKEREAA

Abenduaren lehenengo hiru egunak euskerea ospatuteko jardueraz beteta egongo dira

Euskaraldiaren atzen bi egunetarako eta Euskerearen Nazinoarteko Egunerako, abenduak 3, hainbat jarduera antolatu ditue Arratia eta Zeberion, euskerea bera ospatuteko eta gure eguneroko bizitzan erabilera bultzatzeko.

Erredakzioa

Izan be, ariketa sozialaren amaiera, hizkuntza ohitura barriko sasoi baten hasikerea izateko helburua dauka Euskaraldiak.

Euskaraldiari amaiera emongo jako hilaren 2an. Herri argazkia bezperan aterako dabe Bedian, 19:00etan, frontoian eta ostean, trikitalariek girotuta, ardoia eta gaztaia dastatuz eutsiko deustie jai giroari Kolazinokoek. Euskaraldiaren amaiera egunean, Euskaraldiari lotutako eskulanak egingo ditue Bediako ume eta gazteek.

Areatzan, amaiera emoteko Euskaraldiko kantuaren jantzea egingo dabe plazan, 17:30ean, eskolako umeek, jantza garaikideko eta euskal jantzetako ikasleek eta ostean txokolatea egongo

da hurreratzen diranentzat. Artean, 17:00etan, apainketa tailerra, 18:00etan, euskal abestien maratoia eta 20:00etan, jantza modernoko taldeak erakustaldia egingo dau. Ondoren, taloak egingo dira jateko.

Diman eta Lemoan ekitaldi banagaz emongo deustie amaiera hamabost eguneko ariketa sozialari. Dimakoa, iluntzeko 19:00etan izango da frontoi txikian eta ostean, Sama Siku fanfarreagaz eroango dabe jai giroa tabernaz taberna. Lemoakoa barriz, 16:30ean hasiko da Lemoako eskolako aterpean, umeentzako jolasak, Txoborro magoa eta Ane Lindaneren bakarriketea egingo dira. 20:00etan, helduentzat, magia poteoa egingo da herriatik Txoborro magoagaz be.

Euskerearen Eguna

Euskerearen Nazinoarteko Eguna urtero ospatuten da, Euskaraldia barriz, urte birik behin, baina aurtengo moduan Euskaraldia egiten danean, Euskerearen Egunaren bezpera arte izaten da. Herri gehienetan, ekitaldia ez bada, jardueraren bat antolatu dabe aisialdian euskeraz bizitea ahalbidetzeko.

Arantzazun, 18:00etan, serigrafia tailerra egingo da Kultur Gunean eta 20:00etan, kantaldia Anderregaz Herriko Tabernan. Areatzan, *Azalerako ipuinak* ipuin kontaketea egingo da 17:30ean ludotekan, Sarao Bikandiren eskutik eta 20:30ean,

Elepunto dj-ak musikea ipiniko dau udaletxeko arkupetan. Diman, ekitaldia egingo dabe frontoi txikian eguerdiko 12:00etan: testu bat irakurri eta Gazte Barri jantza taldearen, bertso eskolako eta Zamakola alkarteko abesbatzaren emonaldiak egingo dira ekitaldian.

Igorren, kalejirea egingo da 11:30etik 15:00etara, Katuska Ta Katilu Hezkuntza eta Antzerki taldeagaz. Lemoan, umeentzako antzerkia egingo da 17:30ean, Kotxepin Kultur Etxean; Didau Antzerkia Faktoriaren *Frankenstein ausarta, eszentrikoa, sentibera* lana, hain zuzen be.

Zeanurikoek, herri bazkaria

egingo dabe jubilauren tabernan (40 baino gehiago badira frontoian) eta ostean musikeagaz girotuko dabe arrastia. Makean be ospatuko dabe Euskerearen Eguna, Euskal Selektzioaren aldeko jaietan. Han, pelota partiduak, bertaldiak, argazkia eta kontzertuak egingo dira.

Zeberion barriz, ibilaldia antolatu dabe 11:00etan eta ostean gaztaina jana eta musikea. Arrastian, umeek eukiko dabe euskeraz ondo pasetako aukerea. 18:30etik 20:00etara, artzain jokoa, puzzle tailerra eta hozkailurako imanen tailerra egingo dira aterpean eta 20:00etatik 21:00etara, disko festa.

Film bi euskeraz ikusteko aukerea egingo da Igorren hamabostaldi honetan



Erredakzioa

Zemendiaren 27an hasi ziran Zinuema euskerazko ikus-entzuzkoen proiektu pilotuko emonaldiak, *Zure platerian hasten da mundua* dokumentalagaz eta osteko berbaldiagaz. Abenduaren 4 eta 11n, barikuz, 17:00etan, film bi euskeraz ikusteko aukerea egingo da Igorreko Lasarte Areatoan, *Izurde mutikoa* eta *Lupin III* hurrengo hurrengo.

Izurde mutikoa euskerara bikoiztutako animazinoko umeen-

tzako pelikulea da. Filmak, itsasoan galduta egoanean izurdeek salbau eta hezitako mutiko baten istorioa kontetan dau. Munstro batek urpeko mundua bereganatu eta lehorrera erbestertzen dau mutikoa. Murvarid kapitainak hartuko dau etxean eta kapitainaren eta Elur Bola izurdearen laguntzeagaz mutikoak bere benetako jatorriaren misterioa argitzeko bidaia bateri ekingo deutso.

Hurrengo barikuan, gaztetxoei zuzendutako animazinoko beste film bat egingo da Lasarte Areatoan. Jatorrizko bersinoan, japonieraz, euskerazko azpitoluakaz ikusi ahal izango da. Arsene Lupinen abentura honetan, Lupin arnegatutako talde batek batera, Bresson irakaslearen egunkari mitikoa bilatzen eta lapurtzen saiatzen da eta, bide batez, modua asmatu be egingo dau kons-

pirazino nazi bat ezetu arazoteko, poliziatik iges egiteko eta mundua salbetako. Hau Takeshi Koikeren anime bat da, Monkey Punch-ek sortutako manga baten oinarritua.

Zinuema

Zinema aretoetan dagoan euskerazko eskaintza urriari erantzuteko asmoz, sortu eban Zinuema egitasmoa Uemak (Udalerrri Euskaldunen Mankomunidadeak) Tinko Filmeak-en laguntzeagaz. Proiektu pilotua lau herritan ipini da martxan, Ataun, Azpeitia, Etxarri-Aranatz eta Igorren, hain zuzen be.

Herri horreetan, 12 ikus-entzuzko, pelikulak, dokumentalak eta abar, euskeraz edo euskerazko azpitoluakaz ikusi ahal izango dira, jentearen erantzuna ikusi eta proiektua denporan eta lekuetan zabaldu ahal dan ikusteko.



ZU NON, HAN DA!

57. DURANGOKO AZOKA

LIBURU AURKEZPENAK

Abenduak 13. 17:30
Kris Etxabe. "Yoko Kokomoko"
Marrak paper denda (Igorre)

Abenduak 16. 18:30
Elena Olave. "Aizpari Gutuna"
Orrie liburu denda (Igorre)



Zazpi Haizetara Euskal Herriko produktuak 94 631 92 43



Artisautza,
euskal jantziak,
bitxiak...

Gabonetan ez dakizula zer oparitu?
Gurean aukera asko topaiko dozuz.
Otzaren enkarguak hartzean hasita gagoz,
eskatu zeurea!

📍 Agirre Lehendakaria 11 ✉️ zazpihaizetara.arrantia@gmail.com



**EUSKEREAREN
NAZINOARTEKO
EGUNA**

Zeanuriko Udala  ZEANURI



EUSKARAK 365 EGUN

Ubideko Udala 

ARRATIAKO EGOITZA



• Kalidade goreneko zainketak • Kasu baxotxaren arreta personalizaua • Bere lanagaz konprometidutako profesionalak • Ondo hornidutako instalazio abegikorak, adinekoak etxean bezala sentidu daitezcan • Arratiako Egoitza bere egoiliar guztientzako bizi-kalidade ezin hobea ziurtatzeagaitik bereizten da • Menpekotasun-egoeran dagozan adineko guztiak maitasunez eta errespetuz tratetea.



Arratiako Udalen Mankomunitatea

**IPINI ZURE IRAGARKIA
BEGITUN**

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

**Abenduaren 3an
eta urte osoan
euskaraz ekingo
deutsagu**



DIMAKO UDALA

Izan zaitetz ahobizi edota
belarriprest egunero.
Zaindu dezagun euskara
urteko 365 egunetan.



**EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA
abenduaren 3a**

Bediako Udala



MENDIA

Irazu Aranburuk eta Oihana Kortazarrek irabazi eben Lemoatx Trail

Erredakzioa

Eguraldiak ez eban lagundu eta berez gogorra dan lasterketea, gogorragoa izan zan. Ha-ta guzti be, giro ederra eta partaidetza handia egon zan. Lasterketa nagusia 24 km-koa, Oihana Kortazarrek irabazi eban andrazkoetan eta Irazu Aranburuk gizonetzkoetan; 16 kilometrokoan barriz, Onintza Odriozola eta Ander Iza izan ziran irabazleak.

Oihana Kortazarregaz, Oihana Azkorbebeitiak eta Montserrat Vazquezek osotu eben 24 kilometroko lasterketako andrazkoen podiuma. Gizonezkoetan, Irazu

Aranbururen ostean, Jon Duranak egin eban bigarren eta Ander Lopezek hirugarren.

Hamasei kilometroko lasterketeari jagokonean, Onintza Odriozolagaz, Estitxu Azpitarte eta Irati Casais igon ziran podiumera; gizonetzkoetan, Ander Iza, Jon Gorria eta Ibai Cebrian izan ziran lehenengo hirurak.

Ganzabal Mendi Taldeko kideen artean helmura lehenak heldu ziranak be saria jaso eben. 24 kilometroko lasterketan, Tamara Txikon eta Markel Aierdi izan ziran sarituak eta 16 kilometrokoan, Ainara Fernandez eta Kevin Lucha.



Jon Durana, Irazu Aranburu eta Ander Lopez.

PELOTEA

Bizkaiko Ohorezko Mailara igon da Dimako Txumuluxueta Pelota Kluba

Erredakzioa

Bizkaiko mailarik gorenera igon da Txumuluxueta eta lurraldeko klub onenetako pelotarien aurka neurtzen dira klubeko 18 urtetik gorako pelotariak. Pasea, aurreko denporaldian, 9 partidu irabazi eta 2 galduta lortu eben. Sano denpora gixian, Bigarren Mailatik Ohorezko Mailara pasau dira.

Txumuluxueta moduko klub txiki baterako Lehenengo Maila be ona zala dino Xabier Rekalde pelotari eta entrenatzaileak. "Oin dala urte bi Dima Bigarren Mailan egoan. Hori Dimarentzat ondo egoan ze klub txikia dalako, eta Ekhi Ziarrustak, Lur Ziarrustak eta Kimetz Zapikok helburutzat eukien maila mantendutea gu Gazte mailatik Nagusi mailara heltzean ginanera. Eta lortu eben, ez mantendutea bakarrik, Lehenengo Mailara heltzea baino. Gu heldu ginan igaz Nagusietara eta Lehenengo Mailan jokatzen lortu genduan plaza

hori mantendutea, ez jaitea. Eta aurten esan genduan igual pausu bat gehiago emon daikegu maila igoz. Lortu dogu eta oso pozik gagoz" azaldu deutso BEGITURI Xabier Rekalde Txumuluxuetakoak.

Txumuluxueta

Txumuluxueta Pelota Klubean 50 bat lagun dira pelotan ikasten eta jokatzen, 5 eta 30 urte bitartekoak. Hiru entrenatzaile dagoz, Ainhoa Ruiz de Infante, Gorka Santos eta Xabier Rekalde. Zuzendaritzan, Ekhi Ziarrusta eta Leire Atutxa dagoz eta Mauri Zapiko da presidentea.



Ainhoa Ruiz de Infante, Xabi Rekalde, Joritz Narbaiza eta Lur Ziarrusta.

TAEKWONDOA

Andoni Cintadok zidarra irabazi eban Munduko Taekwondo Txapelketan

Erredakzioa

Txapelketea, Guadalajaran (Mexiko) jokatu zan zemendiaren 13tik 20ra eta 80 kilotik beherako kategorian lortu eban zeberioztarrak munduko bigarren izatea, Park korearraren atzetik. Korearraren kontra galdu aurretik, lau burrukaldi irabazi ebazan, aurkari gogorren kontra; Portugal, Jordania, Grezia eta Egiptoko aurkari irabazita heldu zan finalera. Finalean ezin izan eban korearra garaitu baina txapeldunorde modura amaitu eban Cintadok jardunaldia. "Burruketan, indartsu ikusi dot neure burua eta konzentrauta egon naz; oreka ona euki dot, lasaitasuna eta burrukaldia



Andoni Cintado gorritz.

irabazteko gogoaren artean. Palmares handiko aurkariak dira eta gatxena ez da bateri irabaztea egun baten; gatxena da danei ira-

baztea egun baten" azaldu deutso Cintadok BEGITURI. Finalean be burruka ona egin arren, hegokorearra hobeza izan zala dino Zeberioakoak.

Igorren
Euskeraren egune
Abenduak 3

Euskerak batzen gaituelako
egizu 365 egun euskeraz

ELSKERAK 365 EGUN

Erdu!

11:30-15:00 KALEJIRA
Katuska eta Katilu herrian zehar

IGORRE
Danon herria
Danon aukera

euskerego

PELOTEA

Master Laboral Kutxako finalerdia jokatu dau Amaia Aldaik

Abenduaren 4an, Matienan jokatu dira finalurrekoak. Aldaik Miriam Arrillaga izango dau aurkari eta Enara Gamindek, Olatz Arrizabalaga.

Erredakzioa

Amaia Aldaik pelotari dimoztarra Emakume Master Cupeko Lau t'erdiko Txapelketan dabil burubelari eta lehen faseak gainditu ostean, finalurrekoa jokatu dau hilaren 4ko eguerdian, Matienako Udal Pelotalekuan. Hasteko, Gaminde eta Arrizabalagaren arteko partidua jokatu da eta gero, Aldaik eta Arrillagaren artekoa; "partidu gogorra" izango dala dino Aldaik.

Finalurrekorako pasea zementariaren atzenurreko astegoienean lortu eban dimoztarrek, Salsamendi 22-4 irabazi ostean. Partidua erraz irabazi ei eban: "Egia da bera lesino larri batetik datorrela, urte oso bat egon behar izan dau geldi; partidua hau hemendik eta hiru hilerak jokatu ezker, emaitza desbardina izango zan".

Horrez gain, Diario Vascoren Lau t'erdiko Txapelketea be badauka jokoan. Honetan be heldu da finalurrekorra; Tolosan jokatu dau partidua abenduaren 8an, Enara Gaminderen kontra.

Bizkaiko binakako txapela

Lau t'erdiko txapelketez gainera, Amaia Aldaik Bizkaiko Eskuz Binakako Txapelketea be ibili da jokatu eta ezin hobeto amaitu dau torneo, txapela jantzita. Enara Anitua izan dau bikote eta finala Olatz Arrizabalaga eta Marta Gomezaren aurka jokatu eban zementariaren 26an. 22-15 amaitu zan partidua: "Bardinduta nahiko aldiz joan ginan; aurrean, ekimena izan genduan bai Olatzek bai neuk, baina gitxiago oparitu neban eta hor egon zan 22 tantuetara heltzeako kakoa".



MENDIA

Aketegiko Mari ikus-entzunezkoa proiektuak da Zeberion

Erredakzioa

Austari Mendi Taldeak antolatuta, alpinismoa eta mitologia buztartzen dauzan Aketegiko Mari ikus-entzunezkoa egongo da ikusgai abenduaren 2an, 19:30ean, udaletxean.

Egilea egongo da bertan, aurkezpen bat egiten eta ikusi osteko jentearen galderei erantzuteko. "Ez da alpinismoari edo mitologiari buruzko berbaldia, kontakizun bat baino" dino Koke Lasa egileak Austari Mendi Taldekoen webgunean. Kontakizunean, gazte mendizale batzuk Aketegiko Mari eta bere hatx-zuloa topetako ahalegina egingo dabe. Horrek eroango ditu Aizkorriara, hainbat korridore igotera (alpinismoa) eta gainera Mariren beste zenbait bizileku



bisitatzera: Txindoki, Murumendi, Anboto, Itxina, Aloña, Putterri... labur bada be. Tartean Mariri buruzko aitamenak egiten dira.

ZIKLO-KROSA

Nazinoarteko ziklo-krosa eta Txiki Koparen finala jokatu dira Igorren

Abenduaren 10ean, zapatua, Txiki Koparen finala jokatu da Igorren eta hurrengo egunean izango da nazinoartekoa. Berrogeta bosgarren edizino honetan, barrikuntza batzuk egongo dira zirkuituan, tartean, bizikletea aldean hartuta, ziklo-krosariak igon beharko daben eskilara bat.

Erredakzioa

Txiki Koparen finala, 10:00etan hasiko da eta umeen kategorian guztietako finalak jokatu dira Igorrenko zirkuituan. Ostean, sari banaketara egongo da. Hurrengo egunean, 10:00etatik 14:00etara, Kadeteak eta Junior neska eta mutilen lasterketak, Elite eta 23 urte baino gitxiagoko andren lasterketea eta Elite eta 23 urte baino gitxiagoko gizonen ziklo-krosa jokatu dira. Aurten, Igorrenko Ziklo-krosa, nazinoartekoa izango da, C2 mailakoa eta UCIrako puntuagarria.

Zirkuituan be izango dira nobedadeak "Ziklo-krosarako hobe-kuntza batzuk eskatu geuntsazan

Igorrenko Udalarik: bizikletak garbituteko, terenoaren garbiketarako eta abar. Eta zirkuitu barruan eskilara bat eskatu genduan. Egin da obra hori eta oso ondo geratu da" azaldu deutso BEGITURI Leire Aurrekoetxea Arratiako Ziklista Elkarteak. Umeak entrenau dirala han eta eskilareak arrakasta handia izan dauala dino Aurrekoetxeak.

Astegoienean osoko antolakuntzan 100 bat boluntario egongo dira beharrean.

AZEko txirrindulariak eta Txiki Kopa

Nazinoartekoan, AZEko klubeko txirrindulari batek hartuko dau parte; Dimako Xabi Ferrok, hain

zuzen, urtailean Baque taldeagaz hastekoa dana. Aurreko egunean, Txiki Koparen, Arratiako ziklista eskolako 12 ume inguru dira parte hartzeakoak. "Kategoria guztietako umeak daukaguz eta oso ondo dabil. Azpimarratzekoa da ze maila emoten daben!" dino AZEkoak.

Oin dala urte bi sartu zan ziklo-krosa Eskola Kirolean eta Txiki Kopa sortu eban. Txiki Kopea urrietatik abendura jokatu da eta sei lasterketek osotuten dabe. Saikapenean, lehenengo AZEko Peio Legina dago eta Igorrenko lasterketea irabazi ezker, Txiki Kopea irabaziko dau.

Ume askok hartzean dabe parte eta finalean jente asko etorriko dala Igorrenko uste dau antolaketakoak; izan be, parte hartuko dauan ume bakoitzagaz, familiako hainbat lagun etorten dira. "Txiki Kopa igaz hasi zan, Txirrindularitza Federazioak umei neguan bizikletan ibilteko beste aukera bat emon gura izan eutsen. AZEko baiezkoa emon eban hasikeratik eta arrakasta itzela izan dau".



AZEko Peio Leginak ume kategoriako ziklo-kroseko Bizkaiko Txapelketea irabazi dau

Erredakzioa

Igorrenko Peio Leginak, 2009an jaiotakoan ziklo-kroseko Bizkaiko Txapelketea irabazi eban zementariaren 26an Abadiñon.

AZEren arabera, umeen lehen Bizkaiko Txapelketea izan da hau. Izan be, urte bete baino gehiago da sartu zala ziklo-krosa Eskola Kirolean eta Txiki Kopa sortu zala. Lehenengo Igorren jokatu zan igaz. "Ziklo-krosaren arrakastea ikusita, Bizkaiko Federazioak Bizkaiko Txapelketea ipini eban martxan. Arratiako ziklista eskolako Peio Leginak irabazi dau eta hori irabazteaz gainera, Txiki Kopako saikapen buru da" azaldu deutso BEGITURI Leire Aurrekoetxea AZEkoak.

Beste kategorietakoak be ondo Umeen kategorian, 2009 eta 2010ean jaiotakoak lehiatzen



Aretx Tellaetxe eta Peio Legina.

dira. Leginak irabazi arren, kontuan izaten da 2010eko nor helzetan dan mugara lehenengo eta ha be Arratia ziklista eskolako txirrindularia izan zan, Aretx Tellaetxe, hain zuzen be. Kimu kategoriako lehena Zeberio Oihan Rekakoetxea izan zan.

Bizikletak jasoten dabil Ugandara bialduteko

Erredakzioa

Saluganda alkateta bizikletak jasoten dabil Ugandako zortzi eskolako irakasleei eroateko. Bizikleta bat emon gura ezker, urte amaiera baino lehen egin daiteke 652 745 062 telefonora deituta.

Alkatetarako Ugandako nekazal eremuko eskolei lagunduteko dauka proiektu bat. "Eskola batek gure hasi ginan eta oin 8 eskolari eta 3.000 ume baino gehiagori lagunduten deutsegu" azaldu deutso BEGITURI Iker Mijangos alkatetakoak. Bizikletak irakasleak eskolen arteko desplazamentu luzeetan lagunduteko dira eta nagusientzako bizikletak behar dira. Proiektu honetan Alberto Contador fundazioagaz dabiz alkarlanean eta jasotako umeen bizikletak fundazio horren beste proiektu batzuentzat izango dira.

ANTZEZLANA

Pintto Pintto umeentzako txotxongilo ikuskizuna egongo da Lasarte Aretoan**Erredakzioa**

Abenduaren 16an, 18:00etan, egongo da Anita Maravillas teatro konpainiaren *Pintto Pintto* txotxongiloak eta personak batzean dituan antzezlan ikusteko aukerea Igorreko Lasarte Aretoan. Hiru urtetik gorako umeentzat da aproposa antzezlan hau.

Antzezlanak bat-bateko gertakari batek, adiskidetasunak, esaterako, gure mundua guztiz aldatu daikela kontetan dau. Pintto galdu egin dan txakurkume bat da, olgetan ibiltea maite

dauana, baina badirudi norbaitek bildur deusala eta ez dauala beragaz olgetan ibili gura. Adiskidetasunaren jokoak zein zoragarria dan ekarten dau gogora Pintto txakurrak.



KONTZERTUA

Esti Markezek *Hitzekin jolasean* diskoaren aurkezpen kontzertua eskainiko dau Lemoan**Erredakzioa**

Abenduaren 16an, 20:00etan, izango da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Bakarkako bere lehenengo diskoa aurkeztuteko bira dala-ta Lemoan egongo da kantautorea. Oin arte, Mikel Markez, izan dau bidelagun bere ibilbide musikalean.

Diskoan estilo desbardinak tartekatzen ditu baina pop-rocka da estilo nagusia eta kantu askok, berak sortutako hitzak ditue. Iker Lauroba (gitarra), Josu Erviti (bateria) eta Dánae Riaño (bajua)

musikari ezagunez inguratu da *Hitzekin jolasean* diskoan; Garazi Esnaola piano-jolea eta Arkaitz Miner biola eta bibolin-jolearen kolaborazioak izan ditu eta Alaia Martinek kantu biren hitzak sortu ditu, besteak beste.



ERAKUSKETEAK

Gure inguruko faunaren argazkiak ikusgai dagoz Lemoako Kotxepin Kultur Etxean**Erredakzioa**

Abenduaren 15era arte, Joseba Carcavillaren *Naturaren uneak*. *Nire objetiboaren atzean* izeneko argazki erakusketea egongo da ikusgai Kotxepin Kultur Etxean. Astelehenetik barikura, 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era bisitatu daiteke erakusketea.

Argazkilari abadinoztarrak, hainbat urtetan, Abadinoko inguruetan, Urdaibain eta Salburuan, euren habitat naturalean animaliei ateratako argazkiak batzean ditue erakusketa honetan. Carca-

villaren arabera, hain hur hain fauna aberatsa eukitea sorpresea izaten da jente askorentzat.



KOMIKIA

Frantziako dama komikia kaleratu dabe Alvaro Rabellik eta Jose Carlos Torrek

Zeanuriko Alvaro Rabellik gidoia egin eta Jose Carlos Torrek marrazkiak egin ditu. Leticia Gaspar margolaria eta Arte Ederretako irakasleak egin dau berbaurrea eta El gallo de oro Bilboko argitaletxeak argitaratu dau.

Erredakzioa

Hamar urte daroetz alkarregaz lanak egiten Rabellik eta Torrek, baina hau da oin arte egin daben lanik luzeena. Izan be, 88 orrialde ditu komikiak, marrazkiak eskuz eginda dagoz eta urte biko lana izan da. Gidoiari jagokonean be, *Frantziako dama*, Frantziako andrea baladearen bertsioetan oinarrituta dago. "Balada honek aldaera asko ditu, Arratian nahikotxo, Diman be jaso izan dira bertsook. Hau Zeanuriko Undurraga auzokoa da" azaldu deutso BEGITUri Alvaro Rabellik. Frantziako andrea baladako bertsoak Manuel Lekuonak 1933ko *Anuario de Eusko Folklore* izeneko aldizkarian jaso ebazan.

Europako ahozko literaturan be badagoz antzeko istorioa jasoten daben baladak. Euretako bi hartu izan ditu Rabellik kontuan gidoia egiteko, *El romance de la mala suegra* gaztelarazkoa eta *Le col assassin* frantsesazkoa. "Nik hiruretatik hartu dot zeozer eta bildu eta luzatu egin dot. Ze euskerazkoan, esaterako, amaie-



ra madarikazino bat da, eta frantsesazko bersinoan mendekua dator gero. *Frantziako daman* be badago mendekua" dino Rabellik. Liburuak bost atal ditu eta atzen atala, "Atzera begira" izenekoa, Rabellik hutsetik sortutakoa da, hori dana gertatu

aurretik, protagonistea zelangoa zan kontetan dauana.

XV. gizaldiko Zeanurin dago kokatuta, Akauri torrean, eta Areatza be agertzen da komikian.

Juanitaren tragedia kontetan dau *Frantziako damak*. Kanpotik dator Juanita eta bidean agertzen jako senargaia, amaren aginduz Juanita hiltzeko asmoz. "Danetarik dauka: tragedia, drama, akzioa, mendekua, maitasuna...". Amari emon gura izan deusie baladan daukan baino presentzia handiagoa eta *flashback* ugari erabili ditu Rabellik narrazioa ez oso lineala eta aberatsago egiteko.

Eskuz egindako marrazkiak

Marrazkiak eskuz egindakoak dira, arkatzez, eta gero akuarelaz. Ez da marrazki digitala. Komiki gehienak gaur egun modu digitalean egiten dira, baina hau eskuz dago eginda. "Esango neuke hau dala Jose Carlosen lanik onena oin arte. Marrazkiak oso pozik gagoz" dino gidoigileak.

Hori dala-ta, kalidade handiko paperean inprimidu dabe komikia. "Horretan indar handia egin gura izan dogu ze, aspaldion, kalidade eskaseko argitalpen batzuk egin dira eta orduan lana ez da duintzen". Paper arazoak dirala-ta, ez dala erraza kalidadeko paperean argitaratzea eta Polonian inprimidu dira, lehenengo edizinoko 300 ale honeek.

Aurkezpen ofiziala Bilbon egin ostean, Durangoko Azokan be aurkeztuko dabe *Frantziako dama* komikia.

IKUSKIZUNAK

Umeentzako antzerkia eta ipuin kontaketea Lemoako Kotxepin Kultur Etxean**Erredakzioa**

Didau Antzerki Faktoriak 5 urtetik gorako umeentzat *Frankenstein ausarta*, *eszentrikoa*, *sentibera* antzezlan taularatuko dau abenduaren 3an, 17:30ean Kotxepin Kultur Etxean. Hilaren 14an, 18:30ean barriz, Izaskun Mujika ipuin kontalaria egongo da *Gabonetako ametsak* kontaketea egiten.

Mary Shelley-ren personaian inspiratuta, Juanma Alvarezek eta Ainhoa Agirrek, txatartegi baten bizi dan Frankenstein ausart, eszentriko eta sentibera

sortu dabe. Franki, besteengan eragiten dauan efektuaren bildur da eta txatartegi baten bizi da txatarrak hondakinakaz sortu dituan personaia ba-



tzukaz, bere moduan zatiakaz egindako personaikaz. Egun baten, kanpoko mundutik datorren urakan bat lez, Ni azalduko da eta bildur barik mundura salto egiten lagunduko deutso.

Gabonetako ametsak

Beste zita bat daukie 5 urtetik gorako umeek Kotxepinen Gabonetako bezperetan. Gabon gauaren 10 egun lehenago Izaskun Mujikak sasoiko ipuinak kontauko ditu, umeen ametsak biztuteko.

LEHIAKETE

Meteo Arratia Facebook kontuak argazki lehiaketea abiatu dau

Erredakzioa

Lehiaketan parte hartzeako, abenduaren 12ra arte bialdu daitezke Euskal Herriko paisajeak erakusten dituen argazkiak. Horretarako, Facebooken Meteo Arratia kontuari jarraitu behar jako, Messenger aplikazioa jeitsi eta aplikazioaren bidez bialdu behar dira argazkiok. Partaide bakotzak, gehienez hiru argazki bialdu daie. Irabazleak Euskal Herriko produktuen otzaratxo bat izango dau saritzat.

Arantzazuko Mikel Ugarrizak

kudeatzen dau Meteo Arratia Facebook kontua. Bere zaletasun bi, meteorologia eta argazkia, buztartzeko asmoz sortu eban kontu hori. Egutero, Arratiarako eguraldiaren iragarpena, argazkiak, bideoak, jarraitzaileen argazkiak egindako hileroko portadea, edurra egiten dauanean portuen atzen orduko egoeraren informazioa eta bailarako alerta meteorologikoak jakinarazoten dauz kontuan.



DISKOA

Munduari Ahobete hortz begiratuten "berbiztu" da Kristonak taldea

"Kristori eskean ibiltetik Kristonak izatera pasau" dira Eskean Kristo taldea osotuten eben musikariak proiektu barriko aurkezpen diskoagaz.



Erredakzioa

Ahobete hortz "8 kanta, 8 txapligu, 8 bolanderak" osotuten daben diskoa da, kolaboratzaile ez gutxi eta umore dosi handiakaz.

Kristonak talde arratiarrak Elkar estudioetan eta Victor Sanchezen gidaritzapean ondutako lan barria aurkeztu barri dau, Ahobete hortz. Holan, "Kristo Aurretik eta Kristo Ostetik" garaiak banatuko dauzan diskoa entzungai dago daborduko online plataformetan.

Zuzenean entzuteko oster, Durango Azokara itxaron beharko da eta gaztetxe zein aretoetako kontzertuez gozatzeko, urtailera. Oholtzetara igoteko gogoz agertu dira, euren espezialitatea da-ta. Gainera, biniloa be argitarauko dabe lehenengoz, zezeilean.

Elkarren egindako aurkezpenean, taldekideek azaldu dabe atzenaldian munduagaz ahobete hortz dagozalako izentau dabela holan lana: "pandemia, konfinamendua, gerrea, suziri txinatarrak,

Irulegiko eskua, Landetako bost kiloko perretxikoa...". Baina horreetatik, argi geratu da taldearen gaurkotatua baldintzatu dauana sasoi pandemikoa izan dala. "Taldea desegitea be pasau jaku inoz burutik" dinoe; baina orduan ikasitakoak "berbizte honetara ekarri" dauzala argitu dau Pello Artabe abesleak.

Emoierea, zortzi kantako disko bat da, musika organikoa eta "relleno bakoa", kanta guztiei mimo danak emon deutseez eta. Eskean Kristoren garaiko ildoari jarraituta, rock&rolla da ardatz eta hasikera puntua, batzuetan beste estilo batzuk amaituten dabela aitortu arren.

"Bost kolaborazio eder, zoragarri"

"C Tanganak *El madrileño* egin eban moduan, nik el arratiano egin gura izan dot" azaldu dau Artabe, kolaborazio kantidatearen erreferentzia eginda. Izan be, zortzi kantatik bost dira alkarlanean egindakoak. Lehena Niko Etxartegaz egindako *Moogie, Boogie* da. Oin dala hamar urte, lehen diskoan euren kolaborau ebalako, "hasikera barri baten seinale" da hau. Zarama taldeko Roberto Mosso barriz, Eskean Kristoren lehen alkarriketa serioa egin ebalako konbidau dabe *Hauxe da mementua*-n. Aiora Rementeria oster, *Ontziak sutan* abestian ageri da eta euren bano, Zea Maysen kanta bat emoten dauala dinoe. Bizardunak taldeko Jose Mari Carlosen laguntzea be izan dabe *Gora Euzkadi ataskatuta*-n, "ni baino lotsabako, kultu eta jantziagoa" dala aitortu dau Artabe. Atzenik, *Akarrusin* kantuan Olana Lissen ahotsa batu dabe, "gure Tina Turner partikularra".

IKASTAROAK

2023ko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik Igorren

Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxeko harreran, bulego orduetan hilaren 16ra arte, edo ikastaroak@igorre.net

helbide elektronikora inskripzio orria beteta bialduta 18ra arte emon daiteke izena. Inskripzio orri editagarria, www.igorre.net Udalaren webgunean eskuratu daiteke. Hilaren 20an jakinarazoko jakie ikastaroetan parte hartuko dabenei lekua daukien ala ez.

Ikastaroak, maila desbardinetako jentearantzako *Akrobaziak*, *Txi kung*, *Yoga*, *Hipopresiboak*, *Literatura* tailerra eta *Arte plastikoak* dira. Literatura tailerra debalde da. Gainontzekoetan, hiru hilabetero ordaintzean barritzuten jakie ikastaroan ikasleari lekua.

DUNBA

Zubialdeko umeek alkartruketa egingo dabe Bulgariako umeakaz

Pomorie eta Zeberio umeek kanta bat sortuko dabe alkarregaz kultura biak buztartuz.

Zeberio Zubialde ikastetxea

Zubialde eskolako umeak Bulgariara joango dira aurten Erasmus + proiektuaren barruan. Urteak dira Zeberioko eskoleak europar proiektu honetan parte hartzean dauala. 20 urte luzetan Europa goitik behera ezetuteko aukerea izan dabe umeek, eta hainbat herrialde bisitatu ditue, beste batzuen artean, Islandia, Turkia, Txekiar

Errepublikak, Finlandia, Letonia, eta abar. Proiektu honek, aurten be, bidaiatzeko eta beste kultura bat ezetuteko aukerea emongo deutse eskolako 6. mailako umei. Ez hori bakarrik, ingelesez ekiteko aukera aparta izango da-be-ta. Pomorie da zeberioztarrek bisitauko daben herria, eta Bulgariako kostaldean dago, Itsaso Baltzaren ertzean, hain zuzen be. Hegazkin bi eta autobusa hartu



Zeberio umeak Pomorieko eskolara egindako bisitan.

beharko ditue haraino heltzeako.

Zeberio eta Pomorie kantari

Eskola bi honek esku artean daukien proiektua kantu bat sortzea da. Abestia euskeraz, bulgariaraz eta ingelesez izango da. Hizkuntzak nahasteaz gainera, herrialde bietako tradizio, doi-

nu eta musika tresnak alkarreko ditue.

Urtebeteko epea izango dabe lana egiteko. Horretarako, bako-tzak bere eskolan lan egiteaz gainera, alkarregaz aurrez aurre egoteko aukerea be izango dabe. Aprilean Zeberio umeek euren etxeetan hartuko ditue Bulgariako



Pomorieko irakasle eta umeek tradiziozko erropak jantzita, ondoetorri jatekoakaz.

lagunak, eta maiatzean Pomoriera bidaiatzeko zeberioztar gazteen txandea izango da.

AGENDA

ABENDUAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Hilaren 2ra arte, bialdu daitezke argazkiak Arantzazuko Argazki Lehiaketan parte hartzeako *idazkaritza*. arantzazu@bizkaia.org helbidera.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienera, 09:00etatik 21:00etara.

18:00etatik 20:00etara, hilaren 2ra arte izen-emotea jubilauean lokalean. Uparan Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarrekin antolatuta, urteko kuotea, loteria eta Gabonetako bazkaria ordaintzeko inskripzio aldia zabalik; Gabonetako bazkaria 2022ko abenduaren 18an izango da Bainuetxean.

Athletic Gorbeako Gurutzea Peñak Vigora joateko urtekera antolatu dau, Celta de Vigo eta Athletic Cluben arteko partidua ikusteko, urtailaren 27-29 astegoienerako. Izena emoteko epea zabalik dago. Urtekera urtailaren 27an 09:00etan izango da eta partidua astelehenetan jokatzeko bada ez da urtekerarik egingo. Izena 657 719 554 telefonoan edo The Quiet Cornerren emon abenduaren 5a baino lehen.

ARRATIA

Abenduaren 9ra arte, 18eta 35 urte bitartekoek, urri lehenengoaren 2020tik urri lehenengoaren 2022ra artean Arratian enpresak sortu dituenek dirulaguntzak eskatu daiekiz www.arratia.eus webgunean.

Urtailaren 7ra arte, Arratiako Berbalagun dinamikeak antolatutako II. Mikroipuin Lehiaketan parte hartzeako lanak bialdu daitezke arratiaberba@gmail.com helbidera. Gaia librea da eta gitxienez 50 eta gehienez 100 berba izan behar ditu. Kategoria bi dagoz 16 urtera arte eta 16 urtetik gorakoa.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Abenduaren 2ra arte, Euskaraldia.

Abenduaren 12ra arte, Meteo Arratia Lehiaketan parte hartzeako argazkiak bialduteko epea zabalik. Argazkiak Messenger bidez bialdu behar dira Meteo Arratia kontura.

ARTEA

Abenduaren 9ra arte, Gabonetako Postal Lehiaketa. Lanak Kultur Etxeko ludotekan entregatu behar dira. Gero abenduaren 22tik urtailaren 8ra arte erakusketea egingo da aurkeztutako lanakaz.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

18:00etan, *Nire espazioa eman* antzerki familiarra liburutegian.

19:00etan, Euskaraldiko herri argazkia plazan eta ostean ardao eta gaztai dastaketea trikitalariek girotuta frontoian.

DIMA

Hilaren 9ra arte Andraizeak antolatutako turroi ikastarorako izena emon daiteke 679 584 412 edo andraizea@gmail.com helbidean.

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera, liburutegia zabalik.

17:00etan, abenduaren 24ko eguna antolatutako bilera Udaleko pleno

aretoan.

18:00etan, Dimostenen aurkezpena eskolako kamaran.

IGORRE

2023ko ikastaroetan izen-emotea hilaren 16ra arte Kultur Etxean, edo *ikastaroak@igorre.net* helbide elektronikora inskripzio orria beteta bialduta 18ra arte.

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Kultur Etxeko bazkide kanpainera zabalik hilaren 22ra arte.

Arrastian Azoka Solidariorako gauzak batuko ditu Elkartasun Begiradak taldeak autobus geraleku atzeko arkupeetan.

19:00etan, *Sex-sua* liburuaren aurkezpena eta berbaldua Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

Abenduaren 2ra arte, Euskaraldiaren merkataritza kanpainera.

Bonu kanpainera martxan. Urtailaren 15era arte erabili daitezke 10 euroan erositako bonuak 15 euroko baliogaz kanpainari atxikitutako komertzioetan.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Abenduaren 15era arte, *Naturaren unek* argazki erakusketea Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, udagoien osoan zehar, mendi ibilbide autogidatua: Ubide-Eneabe-Bastelarra-Arralde. Ubide inguruko mendiak

ezetuteko aukerea. Informazio gehiago 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

ZEANURI

Argazki Lehiaketan parte hartzeako atzen eguna. Argazkiak: harrera@zeanuri.eus helbidera bialdu.

17:30ean, Zeanuriko jantokiko lantaldeak antolatuta, elikadura osasungarri eta jasangarri tailerra nagusientzat, Bidezko Elikadura eta EHIGE alkarrean eskutik. Umeentzako elikadura osasungarria landuteko eta jolas libreko gunea. Kultur Etxean.

18:00etan, Mazala Andra Taldeak antolatuta, Josune Muñozen berbaldua *Afganistan aldatzen duten emakumeak (Afganistaneko emakumeen aktibismoa eta literatura)* Arkotxan.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

ABENDUAK 2
ARANTZAZU

19:00etan, Saioa Hernandez sexologoak *Amodiorako eta desamodiorako elkarrizketak* berbaldua egingo dau Kultur Gunean.

AREATZA

17:30ean, Euskaraldiari amaiera emoteko, Euskaraldiko kantuen jantzea plazan, eskolako umeek, jantza garaikideko eta euskal jantzetako ikasleek egingo; ostean, txokolata, Areatzako Guraso Elkarrekin antolatuta.

ARTEA

17:00etan, apainketa tailerra; 18:00etan, euskal abestien maratoia; 20:00etan, jantza modernoko taldearen erakustaldia eta ondoren taloak.

19:00etatik 20:30era, II. Bardintasun Planeko informazio puntua plazan.

BEDIA

17:00etatik 19:30era, Euskaraldiaren

boltsak egiteko eskulanak ume eta gazteakaz.

18:00etan, jaiotzaren Playmobil maketea egiteko atzen saioa liburutegian.

DIMA

19:00etan, Euskaraldiaren amaiera ekitaldia: herriko albokariak, testu irakurketea, Dimako Bertso Eskolea, Bihotz, Gurutze eta Oier eta eskolako umeak jantzan frontoi txikian; 20:00etan, Sama Siku fanfarrea tabernarik taberna.

IGORRE

18:00etan, "Proiektuaren azken ikutueta parte hartu nahi?" 12 eta 16 urte bitartekoek deialdia Gaztegunera sortuteko. Kultur Etxean.

21:00etan, Bullets of Misery eta Calathea taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean. Sarrerea 3 euro.

LEMOA

Euskaraldiaren amaiera ekitaldia eskolako aterpean. 16:30ean, umeentzako jolasak; 18:00etan, Txoborro magoa umeentzat; 18:45ean, Euskaraldiaren amaiera ekitaldia eta Egunean Behin Lehiaketako sari banaketea; 19:00etan, Ane Lindaneren bakarrizketea eta 20:00etan, helduentzako magia poteoa Txoborro magoagaz herrikeri zehar.

ZEBERIO

17:30etik 19:00etara, *Anatomia* tailerra Gazteleguan Elhuyarren eskutik.

19:30ean, *Aketegiko Mari. Alpinismoa eta mitologia uztartzen* ikus-entzunezkoaren proiektinoia eta Koke Lasa egileagaz solasaldia udaletxean.

ABENDUAK 3
ARANTZAZU

18:00etan, *Serigrafia* tailerra Kultur Gunean; 20:00etan, euskeraz kantuan Anderregaz Herriko Tabernan.

AREATZA

17:30ean, Saroa Bikandiren *Azalerako ipuinak* ipuin kontaketea ludotekan; 20:30ean, Dj Elepunto udaletxeko arkupeetan.

ARTEA

10:00etatik 14:00etara, Basoa Eskolearen tailerra *Amankomunaren estrategia* Basoa etxean.

DIMA

12:00etan, Euskerearen Egunean ekitaldia frontoi txikian: testu irakurketea, Gazte Barri jantza taldea, Dimako Bertso Eskolea eta Zamakola alkarrean abesbatza.

IGORRE

11:30etik 15:00etara, kalejireia Katuska Ta Katilu Hezkuntza eta Antzerki taldeagaz.

LEMOA

17:30ean, Didau Antzerki Faktoriaren *Frankenstein ausarta, eszentrikoa, sentibera* umeentzako antzerkia Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

Euskerearen Eguna. Bazkaria jubilauean (40tik gora izan ezkeron frontoian) eta ostean musikeagaz girotuko dabe herria.

ZEBERIO

11:00etan, ibilaldia Zubialde-Elizondo-Ermitabarri-Zubibarria-Zubialde. Ondoren gaztaina jana eta musikea. Austarri Kultur Elkarrekin eta Txubelasu Guraso Elkarrekin antolatuta. Euskerearen Eguna.

18:30etik 20:00etara, Artzain-jokoa, Puzzle tailerra eta Hozkailurako imanen tailerra; 20:00etatik 21:00etara, disko festa. Aterpean. Euskerearen Eguna.

ABENDUAK 4
BEDIA

Bedian erroldatutako 18 urtetik gorakoentzat, Donostiako Gabonetako azokeari bisitea, poteoa alde zaharretik eta bazkaria.

IGORRE

17:00etan, Zinuema, *Izurde mutikoa* Lasarte Aretoan; 19:30ean, zinea, *El cuarto pasajero*.

ABENDUAK 7
AREATZA

20:00etan, Misty taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ABENDUAK 10
IGORRE

10:00etatik 13:00etara, Igorreko Ziklo-kroseko Txiki Koparen finalak eta sari banaketea. Olabarriko ziklo-kros zirkuituan.

ABENDUAK 11
AREATZA

11:00etan, *Creando redes de mujeres migradas* tailerra Gazteleguan.

ARTEA

10:00etatik 14:00etara, azokea plazan.

BEDIA

Ganguren Mendi Taldearen urtekera, Turroi Eguna.

IGORRE

10:00etatik 14:00etara, Igorreko Nazioarteko Ziklo-krosa Olabarriko ziklo-kros zirkuituan.

17:00etan, Zinuema, *Lupin III* Lasarte Aretoan; 19:30ean, zinea, *Unicorn Wars* (euskeraz).

ABENDUAK 12
ARTEA

18:00etan, *Conversatorio sobre violencia de género* Kultur Etxean. Aya Zouhair eta Norma Vazquezegaz. Kafrangak-ek, Basoak eta Arte Sareak antolatuta.

BEDIA

19:00etan, Erregeneko kabalgatan parte hartzeako batzarra udaletxean.

16:30etik 19:30era, abenduaren 22ra arte erakusketa: Gabonetako Txartel Lehiaketan parte hartu daberen marrazkien erakusketea; jaiotzaren Playmobilen maketea eta birzikletako materialeak egindako Gabonetako zugatzen erakusketea. Liburutegian.

ABENDUAK 13
IGORRE

17:30ean, *Yako Kokomoko* liburuaren aurkezpena. Hizlariak: Kris Etxabe eta Paul Caballero Marrak liburudendan.

ABENDUAK 14
DIMA

18:00etan, Andraizeak antolatuta, turroi ikastaroa.

LEMOA

18:30ean, umeentzako ipuin kontaketea *Gabonetako ametsak* Izaskun Mujikaren eskutik Kotxepin Kultur Etxean.

ABENDUAK 15
ARTEA


18:00etatik 20:00etara, II. Berdintasunerako Planeko eztabaida taldea Kultur Etxean.

DIMA

18:00etan, Andraizeak antolatuta, turroi ikastaroa.

IGORRE

20:00etan, zinekluba. Lucia Alemanyren *La inocencia* pelikula.

Anna Freixasen *Yo, vieja* liburua komentetako saioa

Morea eta Grisa ekimenaren barruan, Ilgoran Arratiako Andren Jabe-kuntza Eskoleak, edadeko andrei *Yo, vieja* liburuaren gainean berba egiteko saioa proponiduten deutse abenduaren 14an, 18:00etan, Igorreko Kultur Etxean. Liburuaren azpitituluak "bizirauteko apunteak izaki libreentzat" dino, eta zahartzarora libre bizi gura daberen andrei zuzenduta dago.

Anna Freixas gerontologo feministeak, andra zaharren eskubideen arteko ibilbide bat egiten dau liburu honetan, hiru eskubidetan laburbilduz: askatasuna, justizia eta duintasuna. Liburuak komentauz, eguneroko bizimoduan eskubideok lortzeako moduak izango dabe berbagai saioan parte hartzean daberenek.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenerik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

TXAKURKUMEA OPARITZEN DOGUZ

Ama labradore errazakoa. Interesdunek jarri hartu-emonetan gugaz: 628 041 526 telefonon.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruertarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebean.

Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASE PARTIKULARRAK IGORREN

3-4 DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira institutu ondoan. Informazio gehiagorako Whatsapp-a bidali zenbaki honetara: 608 381 984. John.

LOGELAKO ALTZARIAK SALGAI

Logelako altzariak saltzean dodaz. Interesdunek deitu telefono honetara: 689 565 364.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Karmelo Uriarteren "Ederriko". Kontau behar dot liburu bana.

Nagore Lekue (Areatza)
Anuska Emaldi (Zeanuri)



2 Kotxezin Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Frankenstein ausarta, eszentrikoa, sentibera antzezlanerako.**

Janire Lopez (Igorre)
Alaitz Olabari (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umeen moda
sema
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semoda@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 36
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

BIZARGINAK
«Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Baxarra egin eta buzkunduten dogu»
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3-3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

begitu
eus

begitu **20** urte

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!



975 JARRAITZAILE



320 JARRAITZAILE



2.300 LAGUN

begitu
euz

